


Genero-ikuspegia gatazketan:
bakegintzaren aldeko eta
zigorgabetasunaren aurkako ekintza
feministarekin bat egiten duen
nazioarteko lankidetzarantz

Irantzu Mendia Azkue, Gloria Guzmán Orellana



**Genero-ikuspegia gatazketan:
bakegintzaren aldeko eta
zigorgabetasunaren aurkako ekintza
feministarekin bat egiten duen
nazioarteko lankidetzarantz**

Irantzu Mendia Azkue, Gloria Guzmán Orellana*

* **Irantzu Mendia Azkue:** Euskal Herriko Unibertsitateko Soziologia eta Gizarte Langintza Saileko irakaslea eta Hegoa – Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutuko ikertzailea.

Gloria Guzmán Orellana: Hegoa – Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua, Euskal Herriko Unibertsitatea.

Gida hau GLEAK finantzaturako proiektu honen barruan egin da: “Construcción de la Paz Crítica: marco conceptual y metodológico para una cooperación vasca sensible al conflicto”
(Bake Kritikoaren Eraikuntza: gatazkarekiko sentikorra den euskal lankidetzaren baterako marko kontzeptual eta metodologikoa), PRO2016K3010.



Genero-ikuspegia gatazketan: bakegintzaren aldeko eta zigorgabetasunaren aurkako ekintza feministarekin bat egiten duen nazioarteko lankidetzarantz

Egileak: Irantzu Mendia Azkue, Gloria Guzmán Orellana

www.hegoa.ehu.eus

hegoa@ehu.eus

UPV/EHU

Zubiria Etxea eraikina

Lehendakari Agirre Etorbidea, 81

48015 **Bilbo**

Tel.: 94 601 70 91

Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar Enparantza, 2

20018 **Donostia**

Tel.: 943 01 74 64

UPV/EHU

Campuseko Liburutegia

Nieves Cano, 33

01006 **Vitoria-Gasteiz**

Tel.: 945 01 42 87

Faxa: 945 01 42 87

2019ko urtarrila

Diseinu eta maketazioa: Marra Servicios Publicitarios

Itzulpena: Maku Florentino

Inprimaketa: Gráficas Ingugom

L.G.: BI-719-2019

ISBN: 978-84-16257-39-3



Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 4.0 Espainia

Lan honek Creative Commons lizentzia du. Baimenduta dago lan hau kopiatzea, banatzea eta publikoki komunikatzea egilea aitortzen bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada. Ezin da lan hau aldatu, eraldatu edo lan honetatik beste bat eratorri. Lizentzia osoa: <https://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0/deed.eu>

Laburpena

Honako gida honetan, gatazka-egoeretan nazioarteko lankidetzarako politika eta plangintzak genero-ikuspegitik lantzeko premia aztertzen da; horietan, hain zuzen, neurri asko behar izaten baitira indarkeriaren prebentziorako eta hura salatzeke, giza eskubideen urraketen biktimak babesteko eta haiei arreta emateko eta gerraosteko berre-raikuntza eta bakegintzarako. Jarduera-eremu horretan, mugimendu feministak eta emakumeenak esperientzia handia du, eta, gure ustez, funtsezkoa da nazioarteko lankidetzak hori ezagutu, ulertu eta harekin bat egitea, gatazketan genero-ikuspegia txertatzeko ardatz nagusi gisa.

Hitz gakoak

Genero-ikuspegia, gatazka armatuak, bakegintza, nazioarteko lankidetzak, mugimendu feminista eta emakumeena.

Aurkibidea

Sarrera	5
1. Gatazketan genero analisisa aplikatzeko tresnak	7
2. Generoarekin, gatazka armatuekin eta bakearen eraikuntzarekin loturiko nazioarteko adierazpen eta ebazpenak	13
2.1. Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteari buruzko Adierazpena	13
2.2. Beijingeko Adierazpena eta Ekintza-plataforma	13
2.3. Windhoek-eko Adierazpena eta Namibiako Ekintza-plana	14
2.4. Emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko 1325 Ebazpena, eta ebazpen gehigarriak	15
3. Bakearen, desmilitarizazioaren eta giza eskubideen alorreko nazioarteko eta eskualdeko sare feministak	17
3.1. Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Liga (LIMPL)	17
3.2. Beltzez jantzitako Emakumeak (MdN)	17
3.3. Emakumeen Mundu Martxa (EMM)	18
3.4. Latinoamerika: Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarra	19
3.5. Afrika: Emakume, Bake eta Segurtasun Sarea (WIPSEN)	19
3.6. Asia: Bakearen eta Segurtasunaren aldeko Asia-Pazifikoa Emakumeen Aliantza (APWAPS)	20
4. Bakearen alde eta zigorgabetasunaren aurkako mugimendu feministaren eta emakumeenaren estrategiak	21
4.1. Ikerketa feminista gatazka armatuetan: giza eskubideen urraketari buruzko dokumentazioa	21
4.2. Genero-krimenen erantzuleen kontrako ekintza judiziala gatazka armatuetan eta erregimen errepresiboetan	22
4.3. Justizia eta erreparaziorako ordezkotako formulak bilatzea	23
4.4. Emakumeen memoria historikoko lana	25
5. Azken gomendioak	28
5.1. Azterketa kontestualizatuak, jardunbide homogeneousatzaileak saihesteko	28
5.2. Estatuaren indarkeriaren salaketa eta mugimendu feminista eta emakumeena indartzea zigorgabetasunaren aurkako borrokan	29
5.3. Egia, justizia eta erreparaziorako eskubiderako pareko irispidea bultzatzea	30
5.4. “Laguntzaren eraginkortasunaren logikaren” malgutzea: epe luzeko ahalduntze prozesuei laguntzea	31
5.5. Indarkeriaren <i>continuuma</i> identifikatzea eta bakearen eraikuntza eskubideen defentsarekin lotzea zentzu zabalean	32
Bibliografia	35

Sarrera

Gatazka armatuen eta bakearen eraikuntzaren eremuan, generoaren aldagaia kontuan hartzen duten azterketa-markoen eta plangintza tresnen garapena askoz beranduago iritsi da eta mugatuagoa izan da garapen azterketa eta politiken eremu orokorragoan aplikatu eta landu izan direnak baino. Horren bilakaera gatazka-testuinguruetan laguntzaren erronkei buruzko gogoetarekin eta testuinguru horietan nazioarteko lankidetzaren eta giza ekintzaren agenda zabaltzen hasi izanarekin lotuta egon da, zabaltze horretan, larrialdietarako laguntza eta babes helburuak ez ezik, eraldaketa sozial, ekonomiko eta politiko-instituzionalerako, giza eskubideen defentsarako, gerraosteko errehabilitaziorako eta bakea eraikitzekeo prozesu sakonagoak ekarriko dituzten beste helburu batzuk ere txertatzen joateko.

Gatazka bortitzen eta haien eraginaren aurrean garapen politikak eta jardunbideak kolokan jartzen eta berrikusten joan diren heinean, gero eta agerikoagoa izan da gatazken genero-analisia falta dela. Hori dela eta, laurogeita hamarreko urteetan, garapenaren plangintzan generoa aztertzen nabarmendu diren zenbait egilek analisi hori gatazka egoeratan aplikatzean jarri zuten interesa (Byrne, 1995; Byrne *et al.* 1995; El-Bushra, 2000; Moser eta Clark, 2001).

Akademiarekin batera, agentzia eta erakunde multilateral eta bilateralek, eta GKEk ere, onartu egin dute apurka apurka, gatazka-egoeretako euren politiken plangintzan, gauzapenean eta ebaluazioan ezinbesteko parte izan behar duela genero-analisiak. 1998an, *Garapenerako Lankidetzan Genero berdintasunerako eta Emakumeen ahalduntzerako Garapenerako Laguntza Batzordearen Jarraibideek (CAD) (DAC Guidelines for Gender Equality and Women's Empowerment in Development Cooperation)*, onartu egin zuten “tokiko, nazioarteko, eskualdeko eta mundu osoko bakea lorgarria dela, eta emakumeen aurrerapenari lotuta dagoela ezinbestean; haiek direlako aitzindaritzarako, gatazken ebazpenerako eta maila guztietan bake iraunkorra lortzeko funtsezko indarra”. CADek hainbat estrategia proposatu zituen, kide diren herrialdeen jarduerak gatazka egoeratan genero-berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea lortzera bideratuak (CAD, 1998: 30-31): a) informaziorako irispidea zabalduz eta lidergorako eta negoziaziorako trebetasunak handituz, emakumeek eta emakumeen erakundeek erabakietan eta gatazken ebazpenean parte hartzea ahalbidetuz; b) giza eskubideen estandarrak eta nazioarteko arauak indartzea, gatazka armatuko eta gatazka osteko egoeratan emakumeen kontrako indarkeria ikertzea ahalbidetuz, eta c) parte-hartze prozesuak lehenestea, emakumeen esperientziak eta beharrianak, gizonenak bezalaxe, berreraikuntza prozesuetako parte oso izan daitezten.

Orduz geroztik, nazioarteko lankidetzarako hainbat eragilek egindako politikari buruzko agirietan berretsi egiten dute gatazketatik edo gerraosteko berreraikuntza prozesuetatik ondorioztatutako arazoak genero ikuspegitik begiratu behar direla. Hala eta guztiz ere, erronka asko gainditu behar dira oraindik diskurtsoetatik jardunbide kontziente eta sistematikoetara eta gatazka eremuetan bertan erakunde sozialek gauzatzen dituzten ekimenekin, bereziki emakumeen erakunde eta sareekin arduraz eta begirunez jokatzera aldatzeko.

Horrela, bada, gida honen helburua da gatazka armatuetan eta bakearen eraikuntzan, nazioarteko lankidetzaren jardunean genero ikuspegia txertatzeko orientazioak eskaintzea. Abiapuntua gisa, eremu horrekin loturiko hainbat alderdi teorikoren ezagutza dugu, baina batez ere, gatazketako indarkeria eta zigorgabetasuna salatzen, bakea eraikitzen eta giza eskubideak defendatzen, emakumeen erakundeak aitzindari dituzten jardunbide zehatz askotatik jasotako ikaskuntzak.

Gida honetan landu ditugun edukiak eta haien justifikazioa honako hauek dira. Lehenik eta behin, gatazketan garrantzitsuak diren eta, generoari dagokionez, eragin eta parte hartzeko modu desberdin eta desorekatuak islatzen dituzten elementuak identifikatzeko tresna batzuei buruzko informazioa eskainiko dugu.

Ondoren, generoari, gatazka armatuei eta bakearen eraikuntzari buruz xedapen zehatzak jasotzen dituzten araudi-erreferentzietako nazioarteko adierazpen eta ebazpenen hautaketa bat jaso dugu labur; duten garrantziagatik, nazioarteko lankidetzako eragileen politika eta programetan eragin nabarmena dutelako. Aurkezteaz gain, haiei buruzko balorazio kritikoa ere eskainiko dugu, gogoeta pizteko.

Hirugarrenik, gatazka armatuen, bakegintzan eta zigorgabetasunaren aurkako borrokan diharduten emakumeen zenbait sare ezagutaraziko ditugu, nazioarteko lankidetzak eta elkartasunak kontuan hartu beharreko subjektu politiko diren heinean. Jatorri eta zabalkunde desberdineko sareak dira, enfasi feminista desberdinak adierazten dituztenak eta jarduera-helburu eta estrategia zehatzak dituztenak. Nazioarteko eta eskualdeko egiturak soilik aurkeztu ditugu, baina, jakina, beste asko identifika daitezke estatu eta tokian tokiko mailan ere.

Laugarrenik, munduko hainbat tokitako emakumeen eta feministen mugimenduek bakearen alde eta zigorgabetasunaren kontrako jardunean erabiltzen dituzten estrategia batzuk aipatuko ditugu. Estrategia horiek janzteko ekintza zehatzen adibideak emango ditugu, baina labur, ezinbestean. Ekintza-ardatz desberdinak osatzen dituzten programen parte izan ohi diren strategiak dira.

Azkenik, eta ondorio gisa, zenbait gomendio jaso ditugu gatazka egoeratan generoa lantzeak dakartzan inplikazioak hobeto ulertzeko, eta nazioarteko mugimendu feministak eta emakumeenak gauzatzen dituen zigorgabetasunaren kontrako ekimenekin hobeto bat egiteko. Ez dira gomendio itxiak, ildo estrategiko batzuk baizik, analisirako eta lehentasunak zehazteko ikuspegiekin lotuak, horiek piztutako gogoetatik eta dagokion ekintza-espaziotik abiatuta neurri egokiak erabakitzerik egon dadin.

1. Gatazketan genero analisisia aplikatzeko tresnak

2000 urtean, *Genero-berdintasuna eta bakearen eraikuntza: marko operatiboa (Gender Equality and Peacebuilding: An Operational Framework)* agiria argitaratu zen, Beth Woroniuk-ek Nazioarteko Garapenerako Kanadako Agentziarako (CIDA) idatzia, eta eragin nabarmena izan zuen genero ikuspegia¹ gatazka eremuetan gauzatzen ziren nazioarteko lankidetzeta programa eta proiektuetan zeharkako bihurtzeko proposamenetan aurrera egiteko. Gatazken fase desberdinetan genero analisisia egiteko markoa proposatu zuen Woroniuk-ek: “gatazka-aurre”, “gatazka” eta “gatazka-osteko berreraikuntza eta errehabilitazioa” (ikus 1. taula).

1 taula. Gatazka egoeretako elementuak eta litezkeen genero-dimentsioak	
Gatazka egoeretako elementuak	Litezkeen genero-dimentsioak
Gatazka-aurreko egoeretan	
Soldaduen mobilizazioa handitu egiten da	Merkataritza sexuala (haurren prostituzioa barne) handitu egiten da militarren base eta kanpalekuen inguruan.
Ekintza militarren aldeotasuna handitzeko erabiltzen den propaganda nazionalista	Maskulinitatearen eta feminitatearen definizio zehatzak erabiltzen dira, bai eta genero estereotipoak ere. Gizonenganako presioa handitu egin liteke, “nazioa defenda” dezaten.
Bakearen aldeko aktibisten eta erakundeen mobilizazioa	Aktiboki jokatu izan dute emakumeek bakearen aldeko mugimenduetan oro har, eta emakumeen erakundeetan bereziki. Sarritan, emakumeek aginte moralala lortu izan dute ama roletik abiatuta. Agintariak beste protesta modurik ahalbidetu ez dutenean, ama izateagatik egin ahal izan dute protesta emakumeek.
Giza eskubideen urraketak areagotu egiten dira	Emakumeen eskubideak ez dira beti giza eskubidetzat hartzen. Generoan oinarritutako indarkeria handitu egin liteke.

1 1997an, Nazio Batuetako Kontseilu Ekonomiko eta Sozialak honela definitu zuen genero-*mainstreaming*a: “Planifikaturiko ekintza orok emakumeentzako eta gizonentzako dituen inplikazioen ebaluazio-prozesua, legeak, politikak eta programak barne, arlo guztietan eta maila guztietan. Emakume zein gizonen kezak eta esperientziak txertatzeko estrategia da, arlo politiko, ekonomiko eta sozial guztietako politika eta programak diseinatzeko, ezartzeko, ikuskatzeko eta ebaluatzeko; halako eraz non emakumeek eta gizonek onura berbera duten eta desberdintasuna ez den betikotzen. *Mainstreaming*aren azken helburua genero-berdintasuna lortzea da” (ECOSOC, 1997).

Gatazka egoeretako elementuak	Litezkeen genero-dimentsioak
Gatazka-egoeretan	
Trauma psikologikoa, indarkeria fisikoa, hildakoak	Gizonak hein handiagoan izaten dira soldadu/borrokalariak. Hala ere, gatazka askotan emakume borrokalari asko izan da. Emakumeak eta neskak sarritan izaten dira indarkeria sexualaren biktima gatazka armatuetan (bortxaketa, sexu mutilazioa, sexu umiliazioa, nahitaezko prostituzioa eta nahitaezko haurdunaldiak).
Sare sozialen suntsiketa eta etena, familiaren egitura eta osaera aldatzen da	Genero harremanek estresa eta aldaketak eragin ditzakete. Familiaren barneko lan-banaketa tradizionala aldatu egin daiteke. Irauteko estrategiek, sarritan, lanaren sexu-banaketan aldaketak egitea eskatzen dute. Emakumeak mendeko pertsona gehiago haien ardurapean hartzera behartuta egon daitezke.
Mobilizazio soziala gatazkaren alde. Eguneroko bizimoduaren eta lanaren etena	Lan-merkatuko lanaren sexu-banaketa aldatu egin daiteke. Gizonak borrokara bideratuta, emakumeek maizago hartzen dituzte tradizionalki gizonenak ziren zereginak eta ardurak. Emakumeek desafiatu egin dituzte genero estereotipo eta rol tradizionalak borrokalari bihurtzean eta tradizionalak ez diren bestelako rol batzuk bereganatzean.
Materialen eskasia (elikagaiak, osasuna, ura, erregaiak, etab.)	Familiaren eguneroko beharizanen hornitzaile gisa emakumeek duten rolak estresa eta lana handitzea eragin dezake oinarritzko ondasunak lortzea gero eta zailago bihurtzen den unean. Neskek ere jasan dezakete lan-zama handiagoa. Borrokan ari ez diren gizonen ere jasan dezakete estresa, etxe arloko genero-rolarekin lotuta, haiengandik familiaren hornitzaile izatea espero bada, eta haiek ezin badute egin.
Errefuxiatuak eta iheslariak	Larrialdi egoera bati erantzuteko pertsonen duten trebezian generoak eragiten du. Emakume eta gizon errefuxiatuek (halaber, neskek eta mutilek) beharizan eta lehentasun desberdinak dituzte.
Elkarrizketa eta bake negoziazioak	Emakumeak baztertu egiten dituzte eztabaida formaletatik, gatazka-aurrean, erabakiak hartzen dituzten erakunde eta instituzioetara iristerik eta parte hartzerik izan ez dutelako.
Berreraikuntza eta errehabilitazioan	
Negoziazio politikoak eta bake akordioak ezartzeko plangintza	Emakumeen eta gizonen parte hartzea prozesu horietan desberdina da, baina emakumeen presentzia sarritan txikiagoa da negoziazio formaletan edo erabakiak hartzeko guneetan.
Komunikabideen papera mezuen hedatzaile diren aldetik (bake akordioak, etab.)	Emakumeek komunikabideetara iristeko duten desberdintasunak haien interesak, beharizanak eta iguripenak jazoak eta eztabaidatuak ez izatea eragin dezake.
Kanpoko pertsona zibilen eta militarren presentzia	Militarrek, oro har, ez dute genero-berdintasunaren (emakumeen eskubideak giza eskubide gisa, nola hauteman eta nola ekin genero-indarkeria espezifikuari) inguruko formaziorik izaten. Bakeari eusteko misioetan, soldaduek sexualki jazarri eta erasotu dituzten emakumeak eta neskak.

Hauteskundeak	Emakumeek oztopo bereziak izaten dituzte botoa emateko, hautetsiak izateko eta genero-berdintasuneko gaiak hauteskundeetan eztabaidagai izan daitezen lortzeko.
Enplegu sorreran, osasun sisteman, eta abarren inbertitzea	Litekeena da berreraikitze programetan ez jasotzea edo ez lehenestea emakume eta neskek osasun arloan, etxeko ardurei dagokienez edo formazio eta kreditu premien inguruan izan ditzaketan beharrianetan laguntzea.
Soldaduen desmobilizazioa	Borrokan aritu diren guztiak gizonak direla onartu ohi da. Lehenetsuna gizonen ematen bazaie, emakumeak ez dira onuradun izaten lurren, kredituen eta abarren banaketan.
Gizarte zibilaren gaitasuna eta harenganako konfiantza handitzeko neurriak	Erakunde komunitarioetan eta GKEetan emakumeen parte-hartzea, oro har, aldarora izaten da. Erakunde horiek, sarritan, ez dute ez gaitasunik ez interesik izaten berdintasunaren inguruko gaien lehenetsuna emateko.

Iturria: Woroniuk (2000). Geuk itzulia.

Garrantzitsua da gehitzea, alde batetik, praktikan ez dela beti posible izaten gatazka-aurrekoa, gatazka eta gatazka-ostean arteko muga argi bat zehaztea; eta bestetik, munduko hainbat tokitan generoaren arabera gatazkek izan duten eraginari buruzko ikerlan feministek emandako datu multzoan oinarrituta sortutako markoa dela, hortaz, ezinezkoa dela ondorioztatzea potentzialki azter daitezkeen alderdi guztiak ez eta gatazka bortizketan genero inplikazio guztiak hartzen dituenik.

Gatazka egoeratan eta gerra osteko errehabilitazio egoeratan genero desberdintasuna nabarmengarria izan daitekeen moduen adibideak identifikatzea ahalbidetzen du Woroniuk proposamenak. Antzeko proposamenak egiteko –analisirako aldagai gehiagorekin– gida edo erreferentzia izan dira haren ekarpenak. Esaterako, Tom Woodhouse eta Tamara Duffeyk (2000) ere “gatazka-aurrea”, “gatazka” eta “gatazka-ostea” aldietan oinarrituriko markoa proposatu zuten, baina hainbat harreman sozial maila kontuan hartuta –pertsonek artekoa, komunitarioa, nazionala eta nazioartekoa– genero eraginak aztertzerakoan. Haien arabera, gatazka-aurreko aldiak, generoaren analisian funtsezkoa da prebentziorako estrategia egokiak hautatzeko, alerta goiztiarreko sistemen bidez, esaterako, eta halaber ondorengo aldietan esku hartzeko politika eta programa egokiak garatzeko ere; gatazkan bertan, analisi horrek babes eta laguntza hobe eskaintzen lagun dezake, bai emakumeentzat bai gizonentzat; eta azkenik, gatazka-ostean, errehabilitaziorako eta bakearen eraikuntzarako ekintzak eraginkorragoak izan daitezke ahalbidetzen du.

2003an, Nazio Batuen Garapenerako Programak (PNUD) onartu egin zuen beharrezkoa zela gatazka testuinguruetan “genero-erikiko sentikorrek” ziren analisi eta plangintza tresnak erabiltzea, eta dokumentu bat landu zuen, *Gatazka eta gatazka osteko egoeratan genero hurbilpenak* (*Gender Approaches in Conflict and Post-Conflict Situations*), zeinetan hainbat tresna bildu eta haien erabilpena proposatu zuen, bai eta generoaren aldagaia Mary B. Anderson eta Peter Woodrowk landutako (1998) *Gaitasunen eta Urrakortasunen analisirako Markoan* txertatzea ere; hura da, larrialdi egoerarako batez ere, hedatuen dagoen analisirako tresna eta haren helburua da larrialdiko laguntza garapen helburuekin

lotzea krisialdian dauden pertsonen gaitasunak handituz eta urrakortasunak murriztuz. Alde batetik, ulertzen da tresna hori gatazka testuinguruetan aplikagarria dela eta, bestetik, generoaren aldagaia txertatzea –jatorrian aurreikusita ez zegoena– izango litzatekeela marku horren hiru gaitasun eta urrakortasun mota sexuen arabera bereiztea (materialak, sozialak eta jarrerazkoak edo psikologikoak).

Halako tresnen nahia da gatazkan dauden eremuetan diharduten nazioarteko eragileen jardunbidea hobetzea, ideia batean oinarrituta: eragile horiek eraginkortasun handiagoa izango lukete, tokiko komunitateei laguntza hobea eskaini ahal izango litzateke eta gatazkak ebazteko estrategia hobekak aukeratu ahal izango liriteke egoerak eta arazoak genero ikuspegitik aztertzeke eta analizatzeko gaitasuna garatzen badute.

Nazioarteko lankidetzaren jarduna gerraosteko testuinguruetan gauzatzen denean, bakea eraikitzen laguntzea izan ohi du xede; litekeena da ere bake prozesuei, gerraosteko gizartearen berrituraketa eta berreraikuntzari buruzko analisi feministetatik abiatzea, Nazioarteko Harremanetan eta Segurtasun Ikasketetan aditua den Cynthia Enloe egiten duen bezalaxe (ikus 2. taula).

2. taula. Bake prozesuen segimendu feminista ilustratzeko galderak

- Errebolaren edo estatuaren indar armatuetan borrokan jardun izan dutela baieztatu ahal duten pertsonen iritzia pisu handiagoa al du, eta haztapan bereizi horrek nolabaiteko gizontasuna lehenesten du eta emakume gehienak baztertzen ditu?
- Zer puntutaraino bihurtzen dira, gainerakoen begien aurrean, botere militarizatua erabiltzen duten pertsonak gai publikoetan eragin nahi bada ezinbestean eskura eduki beharrekoak?
- Ofizialtasunak edo jendeak, oro har, zer puntutaraino onartzen du segurtasuna esatean (bereziki “segurtasun nazionala”) segurtasun militarri buruz ari garela?
- Gobernu berriaren aurrekontuan (nazioarteko aholkuak jasotzen dituen), zer puntutaraino esleitzen zaizkie funts publiko neurrigabeak segurtasun indarrei?
- Gerraosteko inguru batean, zer puntutaraino emakume baten estatusa definitzen dute erabakiak hartzen dituzten eragin handiko pertsonak, batik bat, gainera, gerra bitartean emakumeek izan dituzten rolei buruz dituzten pertzepzioetan oinarrituta?
- Jendartearen berreraikuntzan, zer erakunde dira patriarkalenak? Erakunde horiek zer agente-eremu eta jendartearen berreraikuntzarako zer baliabide kontrolatzen dituzte?

Iturria: Enloe [2002], Strickland eta Duvvurn aipatua, 2003: 10.

Azterketaren parte denez, gerra eta gerraosteko egoeratan dauden eremuetan nazioarteko lankidetzak duen paperari buruzko gogoeta egiteko hainbat galdera egin behar dira nazioarteko eragileek hartutako ikuspegiei, lehenetsitako prozesuei eta erabilitako estrategiei buruz; desadostasunak egon litezkeelako haien plantemenduen eta tokian tokian diharduten erakundeen –bereziki emakumeen erakundeen– planteamenduen artean. Jarraian, bakearen eraikuntzan emakumeek egindako lanari buruz dagoen pertzepzioaren inguruan hautemandako hainbat desadostasun jaso ditugu (ikus 3. taula).

3. taula. Bakearen eraikuntzan emakumeen aktibismoari buruzko pertzepzioa		
	Nazioarteko lankidetzak	Emakumeen erakundeak
Helburuak	Garrantzi txikia, politika "biguna"	Bake eta segurtasunerako bideratua, eduki politikoa
Aplikazio-eremua	Erkidegora, tokiko eremura mugatzen da	Tokian tokiko proposamenak, nazionalak eta nazioartekoak
Hedapena	Maila txikian egiten da	Maila txikian eta handian egiten da
Ikuspegia	Ikuspegi kulturala: elkarrizketarako eta komunikazioa bultzatzeko espazioak ahalbidetzean oinarritua	Ikuspegi kulturala eta egiturazkoa: jarrera aldaketan eta egitura eta erakunde sozial desorekatuen aldaketan oinarritua
Estrategiak	Mikro maila: eztabaida talde txikiak eta tailerrak sortzea hainbat talderen arteko konfiantza eta ulergarritasuna eraikitzeke modu gisa	Mikrotik makrora, talde txikietatik bestelako mugimendu sozialekiko sare eta egituretara
Espero diren emaitzak	Gatazka sozialak, erkidegokoak kudeatzea <i>problem solving</i> tekniken bidez	Gatazkak ikusaraztea eta modu positiboan eraldatzea, kausetan eraginda

Iturria: Mendia Azkue, 2014: 269.

Halako desadostasunak egoteak honako hau eragiten du: gatazka handiko eremuetan emakumeen aktibismoa nazioarteko lankidetzako eragileek bakegintzan emakumeek izan behar duten roletik urruntzen denean, aktibismo hori ez da hautematen eta ez da laguntzen bakegintzaren parte gisa. Esaterako, emakumeen zeregina giza eskubideen defentsan, zentzu zabalean (emakumeen eskubideak, egia, justizia, erreparazio eta berriro gertatuko ez delako bermerako eskubidearen erreibindikazioa, enpresa-jardunen gabetze eta espolioazioaren aurrean lurraldea defendatzea barne), ez da bultzatu bakegintzarako jarduera gisa, eta nazioarteko lankidetzaren laguntza izan duten gerraosteko errehabilitazio prozesuetan ustekabean geratu izan da (Mendia Azkue, 2014).

Gatazka politiko eta/edo armatuetan bakegintzan eta giza eskubideen defentsan diharduten emakumeen erakunde batzuen lana ezagututa, jarraian azalduko ditugu aztertutako hainbat alderdi eta sortu zaizkigun hainbat galdera nazioarteko lankidetzaren paperaren inguruan (ikus 4. taula).

4. taula. Gatazka guneetan nazioarteko lankidetzaren jardunaren genero-ikuspegiari buruzko galderak			
Subjektuak eta ikuspegiak	Giza eskubideen urraketak	Indarkeriaren eragina	Aurre egitea eta erresistentzia
<p>Bakearen alde eta zigorgabetasunaren aurka antolatuta dauden emakumeak lehenetsitako subjektua al dira gatazkan dauden eremuetako nazioarteko lankidetzarako?</p> <p>Emakumeei buruzko zer irudi (biktima, subjektu politiko...) gailentzen da nazioarteko lankidetzako eragileen artean?</p> <p>Emakumeek bakegintzan egiten duten lanari buruz, zer ikuspegi du nazioarteko lankidetzak?</p> <p>Emakumeen erakundeek duten ikuspegiarekin bat dator, ala bestelakoa da?</p> <p>Bakeari eta segurtasunari buruzko analisi feministaren markoa kontuan hartzen da?</p> <p>Nazioarteko lankidetzaren eta gatazka eremuko erakundeen arteko harremanak eraldatzeko, ikuspegi dekoloniala txertatzen al da?</p>	<p>Bakegintzarako neurriak babesteko, giza eskubideen ikuspegia kontuan hartzen al da?</p> <p>Zer konpromiso hartzen ditu nazioarteko lankidetzak gatazka guneetako erakundeekin iraganeko eta orainaldiko giza eskubideen urraketak salatzeko?</p> <p>Nazioarteko lankidetzak diharduen gatazka guneetan dokumentatzen al dira emakumeen giza eskubideen urraketak?</p> <p>Egiten al da jendartearen militarizazioaren eta emakumeen giza eskubideen urraketaren arteko erlazio azterketarik?</p> <p>Sexu indarkeriaz gain, emakumeen kasuan, ematen al zaie urratzen diren beste giza eskubideei (zibilak, politikoak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak) behar besteko arretarik?</p>	<p>Modu bereizian aztertzen eta erregistratzen al da emakumeen eta gizonen kontrako indarkeria?</p> <p>Indarkeriaren alderdi objektibo nahiz subjektiboak balioesten al dira?</p> <p>Indarkeria aztertzean, kontuan hartzen al da sekzioartekotasuna?</p> <p>Gatazketan gertatzen den emakumeen kontrako indarkeria lotzen al da beste mota bateko indarkeriarekin espazio/denbora desberdinetan, indarkeriaren <i>continuum</i>aren adierazpideak eta funtzionamendua ulertzeko?</p> <p>Indarkeriaren aurrean, bultzatzen al dira prebentziorako eta babeserako neurri politiko, ekonomiko, sozial eta juridikoak?</p>	<p>Gatazka eremuetan emakumeek gauzatzen dituzten aurre egiteko eta erresistentziako estrategia positiboak aztertzen eta erregistratzen al dira?</p> <p>Zigorgabetasunaren aurkako borrokan emakumeen kolektiboak indartzen laguntzeko, bultzatzen al da akonpainamendu-prozesurik?</p> <p>Lankidetzak moduek ahalbidetzen al dute emakumeen taldeak prozesuen aitzindari izan daitezen eta euren agenda propioa izan dezaten?</p> <p>Baliabide nahiko eta egokiak erabiltzen al dira gatazka eta gatazka-osteko testuinguruetan lan egiten duten emakumeek euren helburuak lortzeko?</p> <p>Bultzatzen al da berriro gertatuko ez dela bermatzeko neurri politiko, ekonomiko, sozial eta juridikorik?</p>

Iturria: Geuk egina.

Gure ustez, jarduera-eremu horretan nazioarteko lankidetzari dagokion akonpainamendu politikoko zeregina betetzeko lan-eremu kontestualizatua eta kontzienteagoa eraikitzen laguntzen dute halako eta antzeko beste galdera batzuek.

2. Generoarekin, gatazka armatuekin eta bakegintzarekin loturiko nazioarteko adierazpen eta ebazpenak

2.1. Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteari buruzko Adierazpena

1993an, Vienan izan zen Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzian baieztatu zen emakumeen eta nesken giza eskubideak giza eskubide unibertsalen parte besterenezin, osagarri eta banaezina direla. Vienako Konferentziako emaitza nabarmengarria da bertan emandako eztabaidek oinarriak finkatu zituztela gerora Nazio Batuek *Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteari buruzko Adierazpena* onar zezaten (1993ko abenduaren 20ko 48/104 ebazpena), eta hori izan zen emakumeen kontrako indarkeria haien oinarritzko giza eskubideen urraketatzat modu eskusiboan landu zuen nazioarteko giza eskubideen lehenengo tresna.

Gatazka armatuetan bizi diren emakumeen egoerari dagokionez, Konferentziak adierazi zuen bere “harridura giza eskubideen urraketa masiboan aurrean; bereziki, genozidioa, ‘garbiketa etnikoa’ eta gerra egoeran bizi ziren emakumeen bortxaketa sistemakoa, eta horrek errefuxiatu eta desplazatu oldea eragiten duela”, eta jardunbide horiek berehala bertan behera uzteko deia egin zuen (Nazio Batuak, 1993, 28. Art.). Era berean, baieztatu zuen gatazka armatuan bizi diren emakumeen giza eskubideen urraketak giza eskubideen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren oinarritzko printzipioak urratzen dituela (*Ibid.*: 38. Art.).

2.2. Beijingeko Adierazpena eta Ekintza-plataforma

Adierazpena eta Ekintza Plataforma Beijingen, 1995ean, egin zen Emakumei buruzko Munduko Laugarren Konferentziaren emaitza izan ziren, eta bultzada handia izan ziren generoaren dimentsioa bakeari eta segurtasunari buruzko nazioarteko agenda eta politiketan kontuan hartzen hasteko. Konferentzia hartan, lehenengoz antolatu zen emakumei eta gatazka armatuei buruzko arloa, zeinaren lanaren emaitza izan zen gobernuentzako helburu estrategikoak eta ekintza-neurriak zehaztea, oso garrantzitsua gatazka eremuetan bizi diren emakumeen eskubideen ikuspuntutik. Helburu estrategikoei dagokienez, honako hauek zehaztu zituzten:

1. Emakumeen parte-hartzea handitzea erabakitzeke eremuetan, gatazken ebazpenean, eta gatazka armatuko egoeratan edo antzekoetan, edo atzerriko okupaziopean bizi diren emakumeak babestea.

2. Gehiegizko gastu militarrek murriztea eta armen eskuragarritasuna mugatzea.
3. Gatazka ebazteko modu ez-biolentoak bultzatzea eta gatazka eremuetako giza eskubideen urraketen eragina murriztea.
4. Bake-kultura lortzeko, emakumearen ekarpena bultzatzea.
5. Emakume errefuxiatuei nahiz nazioarteko babesaren behar duten emakume desplazatuei eta barneko desplazatuei babesaren, laguntza eta formazioa ematea.
6. Kolonietako emakumeei laguntza ematea.

Azpimarratu nahi dugu Beijingen lortutako nazioarteko adostasunik garrantzitsuenak izan zela militarizazioak emakumeengan duen eragin negatiboari buruzkoa; besteak beste honako arrazoi hauengatik: “Gehiegizko gastu militarrek, armen salerosketak eta armen ekoizpenean egiten den inbertsioak, nazio-segurtasunerako premiak kontuan hartuta, desbideratu egiten dituzte garapen sozial eta ekonomikorako baliabide posibleak; bereziki, emakumeek gizartean duten kondizioa eta posizioa hobetzera bideratutakoak”.

2.3. Windhoek-eko Adierazpena eta Namibiako Ekintza-plana

2000. urteko maiatzean, Nazio Batuetako Bake Operazioen Sailak (DPKO), “Mainstreaming of a Gender Perspective in Multidimensional Peace Support Operations” mintegia antolatu zuen Windhoek, Namibian, eta mintegiaren amaierako adierazpenean –Windhoekeko Adierazpena izenez ezagutzen dena– parte hartu zuten pertsonak adierazi zuten bake operazioen eraginkortasuna, genero berdintasunaren printzipioa misio guztietan eta maila guztietan txertatzearen araberakoa zela. Horretarako, emakumeen eta gizonen parte-hartzea bermatu behar zen, bake prozesuetako alderdi guztietan parte eta onuradun berdinekin direlako. Adierazpenarekin batera, *Bakearen aldeko operazio multidimentsionaletan genero ikuspegia txertatzeari buruzko Namibiako Ekintza Plana* (2000) landu zen.

Genero ikuspegia nazioarteko bake operazioetan txertatzeko moduari dagokionez, ikusi dugun joera da neurri horiek bideratu direla gatazka batetik irteten diren herrialdeetako segurtasun-indarretan emakumeen presentzia handitzen ahalegintzea, Segurtasun Sektorearen Erreforma (RRS) programen parte gisa, bai eta bake operazioetan emakume-soldaduen kopurua handitzen ahalegintzea ere. Genero ikuspegia ulertzeko modu hori eztabaidagarria da oso; izan ere, alde batetik, indar armatuetan emakumeen kopurua handitzeak ez du emakumeen emantzipazioa adierazten; gizartearen militarizazioaren handitzea baizik, eta horrek ez die mesederik egiten ez emakumeei ez jendarteari (Anderson, 2012); eta, bestetik, baliabideak segurtasun militarizatura bideratzen jarraitzen dute, eta ez indarkeriak kaltetutako emakumeen eskubideak bermatzera.

Gainera, ezin dugu alde batera utzi gatazka egoeratan bizi diren emakumeen kontrako indarkeria-iturrietako bat, hain zuzen, Nazio Batuetako militarrek (“kasko urdinak”) eta

bake operazioei atxikiriko zibilek eragiten dutena dela. 2014an, Nazio Batuen sail eta Idazkaritzako bulego, erakunde, funts eta sistemako programen –Bake Misio batzuk barne– esplotazio eta sexu gehiegikeriako 80 salaketa jaso ziren, eta zifra 99ra igo zen 2015ean². Indarkeria hori bereziki zigorgarria da *bakeari eta nazioarteko segurtasunari eustea* zeregin duten erakundeetatik datorrelako. Izan ere, boterea eta sexismoa beste edozein espazio instituzional edo sozialetan bezala ageri dira hor ere. Gatazka armatuek eragindako urrakortasun handiko testuinguruetan, erakunde militarrari esleituriko agintearen eta erasoan eta mendekotasunean oinarrituriko maskulinitatearen gailentzearen arteko loturak, itxuraz, erraz abusatzeke moduko eremu bihurtzen ditu emakumeak, are gehiago emakume txiroen kasuan.

2.4. Emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko 1325 Ebazpena, eta ebazpen gehigarriak

1325 ebazpena 2000. urteko urrian onartu zuen Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak, nazioarteko mugimendu feministak urte luzean eragin ondoren. 1325 ebazpenak onartu egin zuen gatazkek modu desberdinean eragiten dutela emakumeengan eta gizonengan, eta emakumeak indarkeriaren aurrean babesteko deia egin zuen; halaber, emakumeek bakegintzaren maila eta fase guztietan (negoziazioetan, bake akordioak aplikatzeko mekanismoetan, desmobilizazioan, armagabetzean eta gizarteratzean, berreraikuntzan, etab.) parte hartuko zutela bermatzera bultzatzen zuen. 1325 ebazpena onartu izana onuragarria izan zen genero ikuspegia erakunde multilateral, bilateral, GKE eta ikerketa zentro gehienetako bake eta segurtasun agendatan txertatzeko.

Era berean, 1325 ebazpenaren ezaugarri ere badira zehaztasunik eza eta ezarpenik eza, eta loteslea ez izatea; Ekintza Planen ezarpena gobernuen nahiaren arabera da, eta gobernuek erabateko autonomia dute plan horien helburuak, neurriak eta segimendu eta ebaluaziorako moduak definitzeko, eta ez diete plan horiek betetzearen inguruko azalpenik eman behar Nazio Batuei³. Badu, gure ustez, beste gabezia bat ere; ez du inon aipatzen militarizazioaren eta emakumeen eskubide urraketaren arteko loturarik, ez eta haien bizi-baldintzak hobeto ditzakeen neurri gisa gastu militarra murriztea ere, Bejingeko Adierazpen eta Ekintza Plataformak jasotzen duen bezala; eta hori, atzerapausoa da emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko konpromisoentzat.

2000.eko hamarkadaren amaieran, Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak hainbat ebazpen gehigarri onartu zituen Emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruz, eta hori 1325 ebazpenaren zehaztapenik eta inplementaziorik ezarekin loturiko kritikei erantzuteko

2 Aipatutako misioak honako hauek dira: MINUSCA (Afrika Erdiko Errepublika), MONUSCO (Kongoko Errepublika Demokratikoa), UNMIL (Liberia), ONUCI (Boli Kosta), UNAMID (Darfur), UNFICYP (Zipre), MINUSMA (Mali) eta MINUSTAH (Haiti). Salaketa guztiak adingabeen sexu gehiegikeriari buruzkoak dira. Informazio gehiago jasotzeko, ikus: Nazio Batuak, 2016.

3 2018ko azaroan, 79 herrialdek Ekintza Plan bat zeukaten 1325 ebazpena ezartzeko; hau da, Nazio Batuetako herrialde guztien % 40. Informazio gehiago jasotzeko, ikus: <www.peacewomen.org/member-states>.

ahalegin gisa interpreta liteke. Ebazpenak honako hauek dira: 1820 (2008); R1888 (2009); R1889 (2009); R1960 (2010); R2106 (2013); R2122 (2013) eta R2242 (2015).

Oro har, ebazpen gehigarri horiek azpimarra jartzen dute gatazka egoeretan gertatzen den indarkeria sexualean. Arazo horri arreta jarri diote nazioarteko hainbat GKEk ere; beraien politika eta programak berrikusi behar izan dituzte eta generoa txertatu dute haien plangintzetako aldagai gisa, batik bat, gatazka egoeretako indarkeria sexuala ardatz hartuta (IASC, 2005). Sexu indarkeria, nazioarteko zuzenbideak 1990. hamarkadaz geroztik gerra krimenezat, gizateriaren aurkako krimenezat eta genozidiotzat har litekeen delitutzat jotzen duena, prebenitzea ezinbestekoa delako iritziarekin bat etorri arren, zenbait egilek, Dubravka Zarkov-ek kasu, sexu-biktimizazioa “gerran, emakumeen azken norakoa” bihurtzeko arriskuaz ohartarazten dute (2006). Hala da, nazioarteko arretaren parte handi bat gerra-armatzat erabiltzen den bortxaketan zentratu den bitartean, gatazka egoeran bizi diren emakumeen kontrako bestelako indarkeria batzuk ezustean geratzen dira bakegintzara bideraturiko nazioarteko ekintzetan: hilketak, nahitaezko desagertzeak, gabetzea, nahitaezko desplazamendua, genero indarkeria pertsonen arteko harremanetan, harreman komunitarioetan eta erakundeen artekoetan, eskubide politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalak urratzea, etab.

3. Bakearen, desmilitarizazioaren eta giza eskubideen alorreko nazioarteko eta eskualdeko sare feministak

3.1. Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Liga (LIMPL)

XX. mendearen hasieran, Lehenengo Mundu Gerra hasi zenean, mugimendu sufragistaren eta gerraren kontrako mugimenduen arteko loturaren emaitza gisa, Bakearen aldeko Emakumeen Alderdia sortu zuten emakume sufragistek –gerora, Bakearen eta Askatasunaren aldeko Emakumeen Nazioarteko Liga (LIMPL) deitua. 1915eko apirilean, hamabi herrialdetako (gerran inplikatuak zeudenak eta neutralak) milatik gora emakume deitu zituen Hagara LIMPLEk Emakumeek Nazioarteko Biltzar batera. Gerran zeuden herrialdeetako buruei aurkeztu zitzaaien Bake Adierazpenean jasotzen zuten ekintza-planaren barruan, armagabetze unibertsalerako eta gerra amaiarazteko deia ez ezik, emakumeen eta gizonen berdintasuna ere eskatzen zuten (Magallón, 2007).

Hortaz, 100 urtetik gorako historia duen emakumeen sare bat da, gaur egun oraindik, mundu osoan presentzia duena. Sare horrek Estatuak eta Nazio Batuek generoarekin, militarismoarekin, bakearekin eta segurtasunarekin zerikusia duten gaiak kontzeptualizatzeko eta lantzeko modua aldarazi nahi du. Honako hauek ditu estrategia nagusi: alde batetik, nazioarteko eragin politikoa eta, bestetik, oinarrizko emakumeen erakundeak sortzea, horiek, jardun-eremu horretan dauden nazioarteko marko legal eta politikoak ezagut eta erabil ditzaten eta haien garapenean parte har dezaten. Esaterako, ekintzen artean, 1325 Ebazpenari buruzko mintegiak antolatu ditu LIMPLEk gatazkan dauden hainbat herrialdetan, eta ez emakume eta erakunde feministei soilik zuzenduak, baizik eta sistema judizialeko eragileei, giza eskubideen aldeko taldeei, komunikabideei eta irakasleei ere, ebazpen horren berri eman eta bakegintzarako ahaleginei, negoziazioei, berreraikuntzari, errekontziliazioari eta gatazken prebentzioari dagokienez emakumeen parte-hartzeko premiei erantzuteko.

3.2. Beltzez jantzitako Emakumeak (MdN)

Beltzez jantzitako Emakumeen sarea bakearen aldeko emakumeen egituraren barruan dago, eta Gerraoste Hotzetik aurrera nabarmendu egin dira gerra ebitaezina dela zalantzan jartzeagatik, gerraren eta emakumeen eskubideen urraketaren artean dagoen lotura egiaztatzeagatik, gatazkei irtenbide negoziatua bilatzeagatik, militarismoa eta horren ondorioak salatzeagatik, gerraren kontra maila lokalean, eskualdekoan eta nazioartean mobilizatzeagatik eta ekintza zuzen ez-biolentoko metodoak erabiltzeagatik. Horregatik guztiagatik, gerraren kontra eta bakearen aldeko aktibismo feministako erreferenterik

garrantzitsuenetakoa da MdN. 1988an sortu zen, okupazioaren kontra eta bakearen alde bat egitea lortu zuten emakume israeldar eta palestinarren talde baten ahaleginaren ondorio gisa, eta 1990eko hamarkadaren amaierarako, gerraren kontrako naziozgaindiko sare bihurtua zen, eta hainbat herrialdetan du presentzia. MdNk eginkizun garrantzitsua bete du estatuko, nazioko mugak, muga etnikoak eta beste edozein motatakoak gainditzen dituzten emakumeen arteko harremanak eraikitzen. Horregatik, sare hori, naziozgaindiko emakumeen erakunde ez ezik, “politikazgaindiko” saretzat ere hartzen da.

Sare hori osatzen duten taldeen helburu komunak honako hauek dira:

- Emakumeen gerraren kontrako ahotsetarako espazioak sortzea, haien haserrea gerraren aurkako erresistentzia aktibo eta ez-biolento bihurtzeko.
- Gerra-politika oro arbuiatzea, Estatuko gobernuak edo bizi diren erkidegoak gauzatzen duenetik hasita.
- Memoria historikoa berreskuratzea, ahanztura eta manipulazioa gailen ez daitezen.
- Estatuko, nazioko muga, muga etniko eta bestelako mugen gainetik, emakumeen sare solidarioak eraikitzea.
- Eguneroko militarizazioaren, tokikoaren eta globalaren arteko loturak salatzea.
- Gogoeta eta jardunbide feminista eta antimilitaristen arteko loturak piztea eta sendotzea.
- Uniformetasun etnikoa ezarriz, emakumeen gaineko homogeneousazio etniko eta kontrol patriarkalaren forma guztien aurka emakumeen erresistentzia ez-biolentoa sustatzea.
- Herri eta erkidegoetan, eskualdeetan eta maila globalean, emakumeek bake-negoiazioetan parte hartzea bultzatzea.
- Bakea sortzea, bakerako hezkuntzaren, indarkeria-ezaren eta antimilitarismoaren bidez.

3.3. Emakumeen Mundu Martxa (EMM)

Emakumeen Mundu Martxa egungo emakumeen eta feministen mugimenduko sarerik garrantzitsuenetakoa da, eta bost kontinenteetan du presentzia. 2000. urtean sortu zen, eta lau alderditan eragiten du: emakumeen autonomia ekonomikoa, emakumeen kontrako indarkeria, ondasun komun eta zerbitzu publikoetarako eskubidea, eta bakea eta desmilitarizazioa. 2010eko urriaren 13 eta 17 artean, Kongoko Errepublika Demokratikoko Bukavun, Nazioarteko Hirugarren Ekintza antolatu zuen EMMk, *Emakumeak martxan denak aske izan arte* izenburupean. Ekintza horren bidez, emakumeen kontrako indarkeriaren, gatazka armatuen eta militarizazioaren artean dauden loturak nabarmendu nahi ziren, eta, aldi berean, gatazkan bizi eta erresistitzen diren emakumeekin nazioarteko mugimendu feministaren elkartasuna agerrarazi nahi zen. EMMren iritziz, militarismoak emakumeengan bidegabekeria ekonomikoa ez ezik, haien aurkako indarkeriaren etikari eusten laguntzen du.

Honela definitu izan dute EMM: “Feminismoak kapitalismoari, neoliberalismoari eta militarismoari egiten dion kritika globalaren adierazpide nagusia” (García eta Valdivieso, 2006). Patriarkatua emakumeen kontrako zapalkuntza sistema gisa identifikatzen du; eta kapitalismoa, emakume eta gizonen gehiengoaren aurka minoria batek eragiten duen esplotazio sistema gisa. “Patriarkatua eta kapitalismoa, bi sistema horiek, elkar elikatzen dute, eta arrazakeria, sexismoa, misoginia, xenofobia, homofobia, kolonialismoa, inperialismoa, esklabotza eta derrigorrezko lanean oinarritzen dira eta horrekin bat egiten dute. Patriarkatua eta kapitalismoa emakumei eta gizonei libre izatea eragozten dieten fundamentalismoen eta integristen oinarria dira. Pobrezia eta bazterkeria eragiten dituzte, giza eskubideak urratzen dituzte, emakumeenak bereziki, eta gizateria eta planeta bera arriskuan jartzen dituzte. Horren aurrean, Emakumeen Mundu Martxaren helburua horren guztiaren ordezkoko aukera bat eraikitzea da, berdintasuna, askatasuna, elkartasuna, justizia eta bakea gisako baloreak oinarri izango dituen (Emakumeen Mundu Martxa, 2004: 1).

3.4. Latinoamerika: Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarra

IM-Defensoras izenaz ezagunak, 2010ean sortu zuen sare hau Mexiko, Guatemala, El Salvador, Honduras eta Nikaraguako erakunde multzo batek, eta elkarri lotzea, gehiago ikusaraztea eta euren lana legitimatzea bilatzen duten giza eskubideen defendatzaile diren emakumeen egitura politiko gisa definitzen da. Eskualde mesoamerikarreko indarkeria eta zigorgabetasun maila altuagatik eta horrek aktibistengan duen eraginagatik, ordezkoko aukerak bilatu nahi dituzte, eta *genero ikuspegia duten babes osoko ereduak* eraiki, haien segurtasuna eta ongizatea hobetu eta, ondorioz, haien lana indartzeko.

Nazioartean gehien ezagutzen den IM-Defensorasen lan-eremuetako bat Informazioa Monitorizatzeko Eskualdeko Sistema da; hortik, defendatzaileen kontra eragindako erasoerik buruzko datu estatistikoak eta haien babes premiak erregistratzen dituzte. Datu horiek aldizka argitaratzeaz gain, kontuan hartuta haien *eredu integralaren* barruan, salaketarako, eragiteko eta babes-neurriak sortzeko balio estrategikoa duela horrek, IM-Defensoras sareak Segurtasunerako eta Autozaintzarako Erantzun Azkarreko Funtsa dauka, bai eta Harrera Etxeak eta Autozaintzarako Zentroak ere, hala behar duten defendatzaileentzat.

3.5. Afrika: Emakume, Bake eta Segurtasun Sarea (WIPSEN⁴)

Egoitza Ghanan duen sare hau 2006an sortu zen gobernu kanpoko erakunde pan-afrikar gisa, emakumeek Afrikako bake eta segurtasun alorrean estrategikoki parte hartu eta aitzindaritzatza gauza dezaten sustatzeko. Sarearen abiapuntua da kontinente horretan gatazka bortitzak eta gerrak izaten daramatzaten hamarkada luze hauetan emakumeek arlo horretan eragin duten mobilizazioa zabala izan dela, baina normalean, *ad hoc*, inpulsiboa eta erreaktiboa; beraz, ekintza estrategiko eta iraunkor batek egituratuagoa,

4 Women, Peace and Security Network Africa.

sistematikoa, proaktiboa, informatua eta espezializatua izan behar duela. Hori dela eta, Afrikako bake eta segurtasun gaitan, emakumeen parte-hartzea profesionalizatzen eta instituzionalizatzen lagundu nahi du sareak. Bide horretan, uste dute emakumeen gaitasunak eta oinarriko mobilizazioa indartzeaz gain, ikerketa-ekintza, eragin politiko eta mediatikoa, dokumentazioa, informazio trukea, elkarrizketa estrategikoa eta sareko lana ere sustatu behar zirela.

WIPSENEk kontinenteko hainbat herrialdetako –Ghana, Nigeria, Boli Kosta, Liberia eta Sierra Leona, kasu– sektore askotako erakundeak biltzen ditu: komunitarioak, gazte erakundeak, erlijioan oinarritutakoak, emakume desgaituen taldeak, desplazatuak, GKE, profesionalen elkarteak, ikastegiak eta ikerketa-zentroak, eta segurtasunaren alorrekoak. Gainera, diasporan dauden emakume afrikarren taldeak ere badaude.

3.6.Asia: Bakearen eta Segurtasunaren aldeko Asia-Pazifikoa Emakumeen Aliantza (APWAPS⁵)

APWAPS, Asiako eta Pazifikoko hainbat herrialdetako erakunde feministen, giza eskubideen defendatzaileen eta bakearen aldeko aktibisten erakundeen sare batek osatzen du. Lankidetzarako eta elkarrizketarako espazio gisa sortu zen, eskualde hartan “emakumeentzat garrantzitsua den” bake eta segurtasun mota bar eraikitzeke. Sarearen oinarri hainbat konstatazio dira: emakumeen eskubideak urratzen jarraitzen dute gatazketan; genero desberdintasunak indarkeria elikatzen jarraitzen du; genero indarkeria betikotu egiten da zigorgabetasunaren bidez; emakumeek bakegintzan betetzen duten zereginak ez du inolako aintzatespenik; gatazka guneetan emakumeak inbisibilizatu egiten dira oraindik eta ez dira aintzat hartzen; eta bakea eta segurtasuna sustatzea xede duten nazioarteko –eta nazionalak ere bat– tresnek ez dute eragin positiborik emakumeen bizitzan, bereziki gatazkak gehien kaltetu dituen erkidegoetan.

Oso sare zabala da, hainbat herrialdetako erakundeak barne hartzen dituena (Myanmar, Sri Lanka, Pakistan, Japonia, Fiji, Indonesia, Filipinak, Ekialdeko Timor, Burma, Nepal, Papua Ginea Berria, Malaysia, Bangladesh, Thailandia, India, Vietnam, etab.). Sare gisa, APWAPSek tresna bihurtu nahi du dagoeneko eskualdean antolatuta dauden erakunde eta ekintzak atxikitzeke, eztabaidak sakontzeke eta emakumeei, bakeari eta segurtasunari buruzko agendari loturiko informaziorako irispidea zabaltzeko. Horretarako, eta strategiaren ikuspuntutik, eragina, formazio trukea eta ezagutzaren eraikuntza lehenesten dituzte.

5 Asia-Pacific Women’s Alliance for Peace and Security.

4. Bakearen alde eta zigorgabetasunaren aurkako mugimendu feministaren eta emakumeenaren estrategiak

4.1. Ikerketa feminista gatazka armatuetan: giza eskubideen urraketari buruzko dokumentazioa

Gero eta ikerlan feminista gehiago daude gatazka armatuek eta indarkeria kolektiboak emakumeengan nola eragiten duten ikusarazi eta aztertu nahi dutenak. Horrekin lortu da egiaztatzea, alde batetik, gatazketan larriagotu egiten direla aurretik zeuden emakumeen kontrako indarkeria-ereduak, eta, bestetik, indarkeria hori ez dela gertaera isolatueta islatzen, baizik eta gerra estrategia eta errepresio politika zehatzen parte dela. Ondoren, Kolonbiako emakumeen mugimenduak egindako ikerketa feministaren adibide bat azpimarratuko dugu.

5. taula. Kolonbia. Gatazka armatuaren biktima diren emakumeen egiari buruzko txostena: ikerketa/ekintza prozesua

Kolonbiako Ruta Pacífica de las Mujeres (RPM) izenekoak *La Verdad de las Mujeres. Víctimas del conflicto armado en Colombia* txostena argitaratu zuen 2013an; eta bertan, gatazka armatuaren markoan emakumeen kontra eragin ziren giza eskubideen urraketa larrien 1.000 kasu inguru dokumentatu dira⁶. 2010ean, gatazka armatua puri-purian zela, herrialdeko bederatzi eskualdetan hasitako ikerketa/ekintza prozesu bat izan zen. Ikerketaren arabera, emakume bakoitzak 4 edo 5 indarkeria-ekintza pairatu zituen, eta % 25 baino gehiago 6 indarkeria mota desberdinen biktima izan zen. Emakumeen % 83k osotasun pertsonalaren kontrako erasoak pairatu zituen; hala nola, torturak eta bestelako tratatu edo zigor krudel, anker edo laidogarriak. Emakumeen % 15ek tortura fisikoak pairatu zituela aipatu zuen; % 54k tortura psikologikoa, eta % 13k sexu-indarkeria. % 76 desplazatzera behartu zituzten, eta % 42k galera materialak izan zituen, haien ondasunak suntsitu zituztelako, etxean indarrez sartu zirelako edo/eta konfiskazioen eraginez. Gainera, agerian geratu zen % 15ek, bizitzan zehar, sexu-indarkeria pairatu zutela; % 25 baino gehiagok indarkeria pairatu zutela haur zirela, eta % 33k indarkeria pairatu zuela bikotekidearen eskutik. Gertaera horiek baieztatu egiten dute emakume kolonbiar askoren kontrako indarkeriak jarraitu egiten duela haien bizitza osoan, etxean bertan zein gatazka armatuaren jokalekuetan.

Ekintza horrek, protagonistek *Emakume kolonbiarren Egiaren Batzordea* izendatu dutenak, eragin erreparatzailea eta duintzailea izan du bizirik irten diren emakumeentzat; izan ere, haien hitzei eta esperientziei balioa eta haien memoria indibidual eta kolektiboko ariketari zentzu politikoa eman zien.

⁶ Ikerketa-txosten osoa eta haren laburpena Ruta Pacífica de las Mujeres erakundearen webgunean kontsulta daitezke: <www.rutapacifica.org.co/publicaciones/198-la-verdad-de-las-mujeres-victimas-del-conflicto-armado-en-colombia-informe-de-comision-de-verdad-y-memoria>. Gainera, ikerketa egiteko erabilitako metodologia hemen ere kontsulta daiteke: Ruta Pacífica de las Mujeres, Alfonso eta Martin Beristain, 2013.

4.2. Genero-krimenen erantzuleen kontrako ekintza judiziala gatazka armatuetan eta erregimen errepresiboetan

Gatazketan indarkeria gertaera larrien biktima izan diren emakume askorentzat, errudunak zein diren agertzea eta epaitzea berez da erreparazioa lortzeko modu bat, hein batean behinik behin. Beraz, helburu horretara bideratuta dago estrategia feministaren parte bat; bereziki, indarkeria salatu nahi eta lortzen duten emakumeen zigor-ekintzarekin eta akonpainamendu juridiko eta legalarekin zerikusia dutenak. Auzietako errekursoetan oso aurrerapen gutxi izan da, baina denak garrantzitsuak izan dira orain arte gailendu izan den zigorgabetasuna urratzen hasteko. Jarraian, emakumeentzat justizia eta erreparazioa eskatzeko ekintza bide horren eredu diren bi adibide jaso ditugu.

6. taula. Guatemala. Sepur Zarco kasua: gatazka armatuak iraun zuen bitartean eragindako sexu-indarkeria, sexu-esklabotza eta etxeko esklabotza delituengatiko epai historikoa

2016ko otsailaren 26an, Guatemala Hiriko "A" taldeko Arrisku Handieneko Zigor Epaiko Lehenengo Auzitegiak militar bat eta komisionatu militar baten aurkako zigor-epaia eman zuen; Plochic Bailarako erkidegoan, Sepur Zarcon kokaturik zegoen destakamentu militarren arduradunak biak. Epaiaren arabera, biek eragin zizkieten hamaika q'eqchi' emakume maiari sexu-indarkeria eta tratu umiliagarri eta laidogarriak. Gainera, hiru emakumeren hilketagatik eta komunitateko zazpi buruzagiren desagertze behartuagatik ere zigortu zituzten.

Sepur Zarcoko epaiketa historikoa bizirik irten ziren biktimen ausardiari eta tinkotasunari esker egin ahal izan zen, bai eta mugimendu feminista eta giza eskubideen aldeko mugimenduko erakundeen lanari esker ere. Sepur Zarcoko sexu-indarkeria pairatu eta bizirik iraun zuten emakumeei auzi estrategikotik laguntzeko, Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas (UNAMG), Equipo de Estudios Comunitarios y Acción Psicosocial (ECAP) eta Mujeres Transformando el Mundo (MTM) erakundeek *Alianza Rompiendo el Silencio y la Impunidad* (Isiltasuna eta Zigorgabetasuna Hausteko Aliantza) osatu zuten. Kasu horretan eman zen epaia eta haren ostean etorri zen erreparazio duinerako entzunaldia –zeinetan indarkeriaren ondorio material, fisiko eta psikologikoengatiko ordain-neurriak agindu zituen Auzitegiak– aurrekaririk ez duten lorpenak dira gatazka armatuetan emakumeei eragindako sexu-krimenen zigorgabetasunaren aurkako borroka globalean.

7. taula. Espainiako estatuak frankismo garaiko genero-krimenengatiko lehenengo kereila

Women's Link Worldwide (WWL) erakundeak frankismoko genero-krimenengatiko lehenengo kereila aurkeztu zuen 2016an. Gerra Zibila (1936-1939) ekarri zuen estatu kolpe frankistan eta haren osteko diktaduran (1939-1975) indarkeriaren biktima izan ziren sei emakumeren kasu dokumentatuak jasotzen dira kereilan. Haietako lau desagertuta daude oraindik, bat erail egin zuten eta haietako bakarra dago bizirik. Kereila hori María Servini de Cubría epaile argentinarrak, jurisprudentzia unibertsalaren abiaburuan oinarrituta, 2010. urteaz geroztik daraman frankismoaren kontrako auziari gehitzen zaio eta zabaldu egiten du.

Aurkeztutako sei kasuetako biktimei eta haien senitartekoei justizia egin eta kasuak ikertzea eskatzeaz gain, kereila horrek argira ekartzen du ehunka mila emakumek frankismo garaian pairatu zuten indarkeria. Genero-krimen ohikoenak sexu-indarkeria, tortura, haurtxoak lapurtzea, ilea larru-arras moztea eta errizino-olioz egindako garbiketak izan ziren. Sei kasu horiek agerian uzten dute Espainiako estatuak erregimen frankistaren biktima izan ziren emakumeekin duen zor historikoa⁷.

Bai Guatemalako Sepur Zarco kasuak bai frankismo garaiko genero-krimenengatiko kereilak, justizia eskatzeko bidean kereila jartzaileekin bat egin duten erakunde feministen estrategia juridiko eta legal bati erantzuten diote, nahiz eta ibilitako bideak eta emaitzak – oraingoz– desberdinak izan diren. Guatemalan, auzitegi nazional batek egileen kontrako epaia eman zezan lortu zuten emakumeek; Espainiako estatuan, berriz, kereila jartzaileek nazioarteko justiziara jo behar izan dute eta, oraindik ere auzibidean dagoen arren, Espainiako agintarien aldetik laguntzarik eza dela eta, justiziarako eskubidea oztopatuta dago oraindik.

4.3. Justizia eta erreparazioarako ordezko formulak bilatzea

Hein handi batean, justizia-sistemaren izaera patriarkalak eraginda, emakumeen kontrako krimenak gauzatzeak duen zigorgabetasun handiaren aurrean, mundu osoko mugimendu feministak erabiltzen duen estrategietako bat izan da “auzitegi sinbolikoak” antolatzea, emakumeentzako justizia- eta erreparazio-baliabide alternatibo gisa. Asian, horren adibide bat izan zen *Tokioko Auzitegia*, 2000. urtean egin zena, Bigarren Mundu Gerran, Japoniako armadak, hainbat herrialdetako milaka emakumeri pairarazi zien sexu-esklabotza epaitzeko⁸. Latinoamerikan, 1990eko hamarkadaz geroztik, hainbat auzitegi sinboliko antolatu dira, batez ere Kolonbian eta Guatemalan, baina bai eta Costa Rican eta Mexikon ere (Ciudad Juárez eta Chihuahua). Europan, 2015ean, Sarajevoko Emakumeen Auzitegia antolatu zuten Antzinako Jugoslaviako emakumeek, zeinek oraindik ere justizia eskatzen jarraitzen duten Balkanetako gerretan haien kontra gauzatu ziren giza eskubideen urraketengatik, jarraian azalduko dugun bezala.

7 Kereila horretako lekukotzak hemen kontsulta daitezke: <<https://womenslinkworldwide.org/files/1113/carpeta-de-prensa-crimenes-de-genero-durante-dictadura-franquista.pdf>>.

8 Filipinak, Korea, Txina, Taiwan, Herbehereak, Indonesia, Malaysia eta Japonia.

8. taula. Antzinako Jugoslavia: Emakumeen Auzitegia. Justiziarako hurbilpen feminista

2010ean, Antzinako Jugoslaviako herrialdeetako emakumeen hainbat erakundek *Emakumeen Auzitegia (Women's Court)* izeneko antolatze prozesuari ekin zioten; haien iritziz, tokiko, eskualdeko eta nazioarteko epai-sistemek ez zutelako ez aintzat hartu ez eta zuzenean zigortu ere 1990eko hamarkadan Balkanetan izandako gatazka armatuetan emakumeen kontra eragindako indarkeria. Hortaz, auzitegi sinboliko hori zigorgabetasunaren aurkako eta emakumeentzako justizia inplementatzeko borrokarako tresna alternatibo gisa sortu zen.

Ekimen horren sorreran nabarmena izan zen Emakumeen Bake Koalizioa (*Women's Peace Coalition*), 2006an Serbiako Beltzez jantzitako Emakumeek eta Kosovoko Emakumeen Sareak (*Kosovo Women's Network, KWN*) bultzatuta. Auzitegiak ikuspegi feminista hartu zuen, eta auzitegien kontzeptuaren eta jardunaren "ber-irudikapen feminista" egiteko ariketa bat proposatu zuen, biktimen zaintzan oinarritua. Bost urte prestatzen eman ondoren, Auzitegiaren lehenengo jendaurreko saioa 2015eko maiatzaren 7tik 10era izan zen Sarajevon. Saio hartan, pairatutako indarkeriari buruzko lekukotza eskaini zuten eskualde osoko emakumeek; halaber, gerraren, sexismoaren eta militarismoaren aurrean euren antolamendu eta erresistentzia-ekintzen berri ere eman zuten. Auzitegiak emakumeen kontrako bidegabekeriak eta indarkeriak, gerra garaian nahiz bake garaian, eta eremu pribatuan nahiz publikoan, jarraitu egiten zuela ikusarazi nahi izan zuen. Gainera, indarkeria modu guztien (genero-indarkeria, indarkeria etnikoa, sozio-ekonomikoa, militarra, politikoa, etab.) arteko loturetan eta emakumei horrek nola eragiten dien, horretan jarri zuen arreta.

Auzitegi sinboliko horien izaera estrategikoa islatzen duten balorazio batzuk dira honako hauek: gertatutakoaren inguruan memoriarako eta jendaurreko onarpenerako atak irekitzen dituzte, kontzientzia soziala eragiten dute eta gobernuak interpelatzen dituzte emakumeen kontrako krimenen eta haien ondorioen inguruan, eta aurkeztutako kasuak arauzko sistema judizialera irits daitezzen baldintzak sortzen laguntzen dute, bizirik irten direnek hala eskatzen dutenean (Mendia Azkue, 2012).

Estrategia horrekin batera, eta maila lokalean nahiz nazioartean ohiko justizia sistemen mugak egiaztatu ondoren, ikusita emakumeen kontrako indarkeriaren tamainari erantzuteko gaitasunik ez edukitzeaz gain haien prozedurak –aurreiritzi patriarkalez beteak– emakumeengan oso eragin handia dutela eta berbiktimizatu egiten dituztela, indarra hartzen joan dira euren ahalegina estrategia juridiko eta legeletan oinarritu beharrean, bizirik irten diren emakumeen banako errehabilitazioan, errehabilitazio komunitario eta sozialean oinarritzen duten ekintza feminista batzuk, arauzko salaketarik egon zein egon ez. Ekintza horien xedea da justizia lortzeko eta biktima eragileen zigor soziala lortzeko ordezeko bitartekoak aurkitzea. Justiziaren mendebaldeko kontzepzioetik urruntzen dira, eta normalean proposamen feminista indigena, komunitario eta historikoki mendekoengandik abiatzen dira.

Adibide gisa, Guatemalako Actoras de Cambio izeneko talde feministak bultzatutako Memoriaren aldeko Jaialdien esperientziak jaso ditugu. Esperientzia horiek herrialde horretan gerrak iraun zuen bitartean, bortxaketak pairatu izan zituzten emakume maien oneratze eta berreskuratze prozesuetan laguntzeko ekintzen parte dira.

9. taula. Guatemala: Memoriaren aldeko jaialdiak

Guatemalako Memoriaren aldeko Jaialdiak Actoras de Cambio izeneko taldeak urte askoan eta gerra garaian bortxatu izan zituzten emakumeekin egindako lanean oinarrituta eraikitako proposamen politiko eta metodologikoaren barruan daude. Amandine Fulchironek (2017: 94) azaltzen duen bezala: “Bizirik irten direnen ahotsa, gorputza eta bizitza, bai eta haietzako jendarteko leku duin, aske eta bidezkoa dago jaialdi horien erdigunean. Proposamena memoria berreskuratzea eta emakumeen oneratzea justiziarako bide bihur daitezten; ezein agintari edo lege patriarkalen mende egongo ez den justizia, eta hura asetzeko bide gure bizitza bera izango duena, gure duintasuna, gure askatasuna eta ongizatea”.

Memoriaren aldeko I. Jaialdi Nazionala “*Sobreviví. Estoy aquí. Estoy viva*” (Bizirik irten nintzen. Hemen nago. Bizirik nago) leloarekin antolatu zuten Huehuetenango, 2008ko azaroan. Bizirik irten ziren emakumeek gerra garaian bizi izan zituzten sexu-krimenen inguruko isiltasuna urratu zuten Guatemalako historiako lehenengo espazio publikoa izan zen. 2011ko otsailean, Memoriaren aldeko II. Jaialdi Nazionala Chimaltenango egin zuten “*Yo soy voz de la memoria y cuerpo de la libertad*” (Ni naiz memoriaren ahotsa eta askatasunaren gorputza) leloarekin; ordurako, bizirik irten ziren emakumeek gaitortua zuten euren erkidegoetan hitz egiteko lotsa eta beldurra, eta indartsu sentitzen ziren, “handi” eta euren buruaz harro. Memoriaren aldeko III. Jaialdia Nebjalen egin zen 2015eko azaroan, eta “*Mujeres sanando la vida*” (Emakumeak bizitza osatzen) izena eman zioten; bizirik iraun zutenei, isiltasuna urratu eta jendarteari indar, maitasun eta emakumeentzako askatasun erreferente bat eskaintzeagatik esker ona eta aintzatespena erakusteko izan zen. Memoriaren aldeko IV. Jaialdia, Emakumeen Ahotsa eta Askatasuna: “*¡Abramos el corazón para despertar la conciencia!* (Zabal dezagun bihotza kontzientzia esna dadin) izeneko, Guatemala hirian egin zen 2018ko azaroan, eta bertan, emakume arbasoen bizitza goraiatu zuten eta osatu eta oneratzeko tresnei eta bizirik iraun zutenek aukeratutako autonomiaren bideari buruzko gogoeta egin zuten.

4.4. Emakumeen memoria historikoko lana

Gatazka eta errepresio egoeretako memoria berreskuratzeke lana munduko emakumeen erakunde askoren ekintzaren erdigunean dago, batez ere biktimen memoria “berriro hutsetik hasteko” diskurtso ofizialen aurrean bide egiten ari den herrialdeetan. Emakumeen memoria kolektiboa “azpitik gora” eraikitzen da, historiaren periferiatik, eta gatazken konponbide negoziatu bat lortzeko bai indarkeriak suntsitutakoa berreraikitzeke, emakumeen ekarpen politiko, sozial, ekonomiko eta kulturalak ikusarazi eta balioesteko premiatik. Horren ildoan, emakumeengandik abiatuta memoria lantzeak historian subjektu gisa identifikatzen laguntzen die eta euren lan politikoa indartzen du. Gainera, justizia egin eta emakumeak oneratzeko tresna bihurtu den memoria da, eta zigorgabetasun politiko, juridiko eta patriarkaleko sistemak desafiatzeko balio du.

Gatazkan dauden eremuetako emakumeen memoriarekin loturiko ekintzen artean, adibide bi azpimarratu nahi ditugu: Txilen eta Kongoko Errepublikan Demokratikoan, emakume erail eta errepresaliatuen oroitzapena, espazio publikoetan ikusaraztea eta haien duintzea sustatzeko bi oroigarriren eraikuntza.

10. taula. Txile: Emakumeak memorian. Errepresio politikoaren biktima izan diren emakumeen omenezko monumentua

Txilen, Pinocheten diktaduratik bizirik irten ziren emakumeen talde batek Lege Proiektu bat landu zuen 1992an diktadura militarren biktima izan ziren emakume guztiak duintzeko oroigarri bat eraikitzeko, baina Lege Proiektua ez zen inora iritsi. Hamaika urte geroago, 2003an, Emakumeak Memorian Batzordea sortu zen, eta emakume errepresaliatuen oroitzapena hiriburuko eguneroko paisaia publikoan ager zedin eta diktaduraren memoria kolektiboaren parte izan zedin aukerak bilatzen jarraitu zuen. Etsi gabe borrokatu ondoren, 2006ko abenduaren 12an, Santiagon, instalazio iraunkor bat inauguratu zuten, nahiz eta ez izan hasieran proposatu zuten tokian. Instalazio haren bidez 118 emakume exekutatu, 72 emakume desagertu eta exiliatu, jazarri, preso eta torturatuak eta diktaduraren kontra, alde edo moldez, borrokatu ziren emakume guztiak omentzen ziren. Espazio horri *“Mujeres en la memoria. Monumento a las mujeres víctimas de la represión política”* (Emakumeak memorian. Errepresio politikoaren biktima izan diren emakumeen omenezko monumentua) izena eman zioten.

Gaur egun, oroigarria hondatuta dago, haren kontra hainbat eraso egin izan dituztelako, eta gainera, erabat utzita dago Estatuak ez duelako ezer egin hura babestu eta mantentzeko; eta horrek, han ordezkaturik zeuden emakume haiek guztiak berbiktimizatzea dakar. Sandra Palestrok, Batzordearen sortzaileetako batek, hala azaldu du egoera: “Bada kulturarekin eta hezkuntzarekin loturiko alderdi bat, memoriaren balioarekin zerikusia duena eta, honakoan, gizonezko heroien memoria ondo babestuta dago historiako testuetan eta hezkuntza arautuan, ez ordea, emakumeen historiaren eraikuntza, berriagoa izanik, eta ez du balio bera eraikuntza kultural eta ibilbide historiko gisa. Guk orain hori guztia badakigunez, ‘historiarik ezean’ ezagutzen gara, historia ikusezinean, eta ikus dezakegu monumentuaren ezaugarri horiek, azken finean, gauza beraren adierazgarri baino ez direla. Emakumeak historian aintzat hartzeko, ezinbestekoa da gu geu arduratzea gure burua ikusarazten, beste inork ez baitu gure ordezkatzeko”⁹.

9 Informazio gehiago jasotzeko, hemen kontsulta daiteke: <www.nomasviolenciacontramujeres.cl/monumento-a-las-mujeres-victimas-de-la-represion-politica-una-obra-para-recordar-la-dignidad-y-la-entrega-de-las-mujeres-que-lucharon-en-dictadura-que-hoy-brilla-por-su-olvido-y-descuido>.

11. taula. Kongoko Errepublika Demokratikoa: Gerrako martiri diren emakumeen oroigarria

2010eko urriaren 16an, Kongoko Errepublika Demokratikoan egin zen Emakumeen Mundu Martxaren (EMM) Nazioarteko Hirugarren Ekintzaren amaieran, *Gerrako martiri diren emakumeen oroigarria* inauguratu zuten Mwengan (Hego Kivu). Oroigarri haren bidez, 1999an herri hartan gertatutakoa gogoratu nahi da; urte hartan, 14 emakume torturatu, bortxatu, biluzarazi zituzten, gorputz osoa piper beltzarekin igurtzi zieten (genitalak barne) eta bizirik lurperatu zituzten erkidegoko gainerako kideen aurrean. Monumentu hori zigorgabetasunaren aurkako borrokaren ikurra da KEDn, inork inoiz ez baitu erantzukizunik hartu krimen haiengatik.

Hori dela eta, oroigarria inauguratu zenean, Kongoko emakumeek justizia eta erreparazioa eskatu zuten, ekitaldi hartarako deia luzatu zien EMMren helburuak gogora ekarriz: “Gobernu eta erakunde politiko multilateralengan presio politikoa eragitea munduko emakumeen bizi-baldintzak eta kalitatea hobetzeko beharrezko aldaketak egin ditzaten, armagabetzeko eta gatazkak bakebidean ebazteko politika barne, zigorgabetasun guztiak, ustelkeria, bortxaketa gerra-arma gisa erabiltzea, okupazioak eta atzerriko militarren presentzia desagerraraztea, eta blokeo politiko eta ekonomikoak ezartzeari uztea”. Horren ildo berean, emakume kongoarrek gogoratu zuten “bakea gerrarik eza edo gizarte batean armarik ez egotea baino askoz urrunago doala”. Bakea ez da emakumeen eskubideak gizartean aintzat hartzen direnean eta indarkeriak desagerrarazten direnean soilik; pertsona guztiek lanerako irispidea, elikatzeko, janzteko, bizitzeko, zaintzak lortzeko eta instruitzeko irispidea eta helduaroan babestuta egoteko aukera dutenean baizik”¹⁰.

10 Gerrako martiri diren emakumeen oroigarriaren inaugurazioan irakurri zen mezu osoa hemen irakur daiteke: <http://fdm.rio20.net/sites/default/files/IMG/pdf_book-2010-ES.pdf>.

5. Azken gomendioak

5.1. Azterketa kontestualizatuak, jardunbide homogeneousatzaileak saihesteko

Gatazka armatua eta politikoa dagoen eremuetako emakumeen erakundeen lana oso jokaleku konplexuetan gauzatzen da; oso aldakorak dira, eragile ugari hartzen dute parte eta, normalean, polarizazio handia izaten da. Aurre suposizio agerikoa dirudien arren, emakumeen erakundeek etengabe gogorarazi behar izaten diete nazioarteko lankidetzak eta elkartasun erakundeek ezinbestekoa dela diharduten testuinguru eta lurraldeak zorrotz ezagutzea eta haien berri eguneratua edukitzea.

Azterketa oso kontestualizatuak egitearen garrantzia jardun homogeneousatzaileegiak saihesteko, hainbat aspekturen inguruan ikus dezakegu. Esaterako, lankidetzaren erreferentziako arau gisa hartzen diren eta erakundeen jarduna bideratzeko erabiltzen diren nazioarteko tresnei dagokienez, 1325 Ebazpena da generoa, gatazka armatuak eta bakegintza alorrean lan egiteko erreferentzia nagusi eta ia bakarra. Izan ere, 1325 Ebazpena garrantzi estrategikoko tresna izan daiteke zenbait emakumeen erakundeentzat, ebazpen hori emakumeak babestera eta bake prozesuetan parte-hartzea sustatzera bideratutako politikak eskatzeko bide egokitzat jotzen baitute. Hala ere, emakumeen beste erakunde batzuek apenas ematen diote ahalmenik euren agendatan; alderantziz baizik, euren estrategiak doitzeko dituzten denbora eta baliabide gutxi horiek bereziki eraldatzailetzat jotzen ez duten tresna batean erabiltzea arriskutsua izan daitekeela uste dute. Beraz, lankidetzak lehenesten dituen tresnen erreferentzialtasuna ezin dugu erabatekotzat eman; aldiz, gatazka eremuetako erakundeekin elkarrizketa berdinkidea sortu behar dugu, haien lehenetsun estrategikoak zein diren azaleratzeko eta haiei laguntzeko.

Beste adibide bat aurkitu dugu nazioarteko lankidetzak diharduen tokietako emakumeen erakundeen identitate-ezaugarrietan; askotarikoak eta kontrajarriak ere izan baitaitezke, eta hortaz, ondo ezagutu behar dira haien izaera eta posizionamenduak, sortu zireneko testuinguruak emanak izan ohi dira eta. Eztabaida pizten duen alderdi bat identitate etniko edo nazionalarena izan ohi da. Esaterako, Serbiako Beltzez jantzitako Emakumeen taldeko aktibisten iritziz, identitate etno-nazionala ezaugarri deserrosoa da eta ez dute onartzen, politika nazionalista oldarkor eta bortitzekin lotzen baitute; aldiz, Kosovoko Emakumeen Sarean, Balkanetako eskualde berean egonik, emakume aktibista askorentzat haiek kosovar izatea bakegintzako lanari txertatzen dioten ezaugarri saihestezina da. Era berean, Guatemala edo Kolonbiako kasuetan, identitate etnikoen defentsa balio eta estrategia nagusia izan ohi da, eta hortik abiatuta egituratzen dituzte, indarkeriaren eta zigorgabetasunaren aurkako emakumeen erakunde askok, haien erreibindikazioak. Dena dela, gatazka eremuetako emakumeen erakundeek dituzten posizionamenduak, ez dira bat etortzen nazioarteko lankidetzak haiengan jarri ohi duen “apolitikotasun” iguripenarekin,

emakumeen “bakegintzarako gaitasunen” inguruko pertzepzio existentzialistak oinarri (Mendia Azkue, 2014).

Azkenik, finantzaketari buruzko arau eta tresnei dagokienez, ikusi dugu gatazka armatu, errepresio eta/edo okupazio eremuetan diharduten hainbat erakunde eta kolektibok bestelako muga edo eragozpenei ere aurre egin behar izaten dietela diru-laguntzak lortzeko eta/edo haietarako eskakizunei erantzuteko, lankidetzaren inguruan gaur egun dauden araudi eta exigentzia parametroak kontuan hartuta. Horrek, erakunde eta kolektibo horien bazterketa ekar dezake. Kontrako inguruabar horietan, indarkeria eta segurtasunik eza muturrekoak diren tokietan, lankidetzak tresnak egokitu beharko dira.

5.2. Estatuaren indarkeriaren salaketa eta mugimendu feminista eta emakumeena indartzea zigorgabetasunaren aurkako borrokan

Gatazka guneetan emakumeen giza eskubideak urratzearen arduraren zati handi bat estatuena da. Indar armatuek eta segurtasun publikoko indarrek, nahiz egitura paramilitarretako kideek emakumeen aurka eragindako indarkeria sistematikoki gertatzen da, planifikatuta eta eskala handian. Emakumeak zuzenean kaltetzea eta emakumeak kide diren talde eta erkidegoetan desegituraketa sozial ahalik eta handiena eragitea dira indarkeria horren xedea, beraz, eragin kolektibo handia dauka (Mendia Azkue, 2017).

Esaterako, gerra-arma gisa sexu-indarkeria erabiltzen duten eragile armatuen artean, sarritan aurkitzen ditugu estatuaren mende daudenak (batik bat armada nazionalak eta talde paramilitarrak). Horrek kolokan jartzen du gatazketan estatuarenak ez diren eragile armatuen diziplinarik eza dela herritarren eta, bereziki, emakumeen kontrako indarkeria azaltzeko faktorea dioen ohiko argudioa. Izan ere, gatazkan dauden herrialde askotan estatuak izan dira eta dira, armada diziplinatu eta zorrotz antolatutako bidez, indarkeria horren erantzule nagusiak. Aldi berean, bake-operazioetan dauden nazioarteko eragileak protagonista izan dituzten indarkeria kasuak ere gogoratu behar dira, lehen aipatu dugun bezala.

Era berean, giza eskubideen defendatzaileak babesteko premiei buruz CEAR-Euskadik berriki egin duen diagnostiko baten arabera, estatuaren segurtasun indar eta taldeak, zuzenean ala indar paramilitarrek ados, edo segurtasun talde pribatuak dira giza eskubideen defendatzaileen kontrako erasoaren eragile nagusiak (CEAR-Euskadi: 2018:15). Hala jaso du, esaterako, Giza Eskubideen Defendatzaileen Ekimen Mesoamerikarrak 2015-2016 txostenean: poliziek, militarrek, funtzionarioek edo gobernuaren beste maila batzuetako agintariek defendatzaile mesoamerikarren –egia, justizia eta erreparazioaren aldeko ekintzetan parte hartzen dutenak tartean– kontrako eraso-egileen % 54 osatzen dute elkarrekin.

Aurreko guztiak esan nahi du nazioarteko lankidetzak, bakegintzari dagokionez, kontu handiz jardun behar duela estatuaren erakundeekin elkarlana gauzatzean,

eta estatuek emakumeen kontrako indarkerian duten erantzukizuna salatzeke hautua egin behar dutela, jarrera horrek lankidetzaz eragile beraren politika eta jardunbide desberdinen arteko interes-gatazka eragiten badu ere. Hori dela eta, instituzioen indartzearen gainera, nazioarteko lankidetzak lehenetsi egin behar du indarkeriaren prebentzioa, bakegintza eta zigorgabetasunaren kontrako borrokaren eremuan aktibo dagoen mugimendu feminista eta emakumeena indartzea. Horrek dagoeneko badiren eta ibilbide luzea duten nazioarteko, eskualdeko, estatuko eta/edo tokiko sareak ezagutzea eta haiekin aliantzak lotzea eskatzen du, gida honen 3. atalean azaldu ditugunak edo beste batzuk, eta, halaber, horretarako baldintzak dauden tokietan, egitura berriak sortzen laguntzea ere.

5.3. Egia, justizia eta erreparazioarako eskubiderako pareko irispidea bultzatzea

Egia, justizia eta erreparazioarako irispidean genero desberdintasuna gailentzen dela egiaztatuta, eta zazpi herrialdetan¹¹ zigorgabetasunaren kontra borrokatzen diren emakumeen mugimenduaren borrokatik ikasita, Eragin-agenda bat osatu genuen 2017an, trantsizioko justizia inklusiboaren aldeko ekintza feminista eta internazionalistarako. Agenda horretan alderdi komunak jasotzen dira, bai gatazka armatu eta errepresio eremuetan emakumeen kontrako indarkeria-ereduei bai zigorgabetasunaren kontrako aktibismoari dagokienez, eta jarraian labor azalduko ditugun proposamen batzuk ere jasotzen dira (Hegoa, 2017).

Egiarako eskubideari dagokionez, beharrezkoa da indarkeria politiko eta armatuko testuinguruetan ikerketarako ekimenak bultzatzea, emakumeen eskubide urraketa nahiz haien aktibismo sozial eta politikoa landuko dutenak, eta gatazketan parte hartzeko dituzten rol, identitate eta moduen heterogenotasuna kontuan hartuko dutenak; beharrezkoa da sexuen arabera bereizirik informazioa jasotzea ere, eta genero analisia txertatzea; genero ikuspegitik abiatutako egiaren batzordeei laguntzea eta indarkeria pairatu ondoren, salaketarako eta oneratzeko lortzeko emakumeen antolamendu-prozesuei laguntzea.

Justiziarako eskubideari dagokionez, ezinbestekoa da zuzenbidearen logika patriarkala iraultzea eta indarkeria pairatu eta bizirik irten diren emakumeei salaketa prozesuetan eta kasuen segimendua egiteko aholkua emateko eta epai eta lege bidean laguntzeko ekimenak babestea. Era berean, garrantzitsua da bizirik irten diren emakumeak euren erkidego eta herrietan, eta eremu nazional, estatuko eta nazioartekoan errehabilitatzeko, errestituzio justiziaren aldeko ekimenen alde egitea ere. Horrek justizia ulertzeko eta praktikatzeko modu desberdinak daudela ulertzea dakar, eta horietako asko gailentzen den mendebaldeko kontzeptuak urrun daudela hartu behar da kontuan.

11 Kosovo, Guatemala, El Salvador, Chiapas (Mexiko), Kolonbia, Mendebaldeko Sahara eta Kongoko Errepublikak Demokratikoa.

Erreparazioari dagokionez, ikuspegi integrala duten planak landu eta ezarri behar dira, emakumeek bizi dituzten eta erreparazioarako irispidea eragotz diezaieketen baldintza material eta desberdintasun sozialak kontuan hartuko dituztenak. Denboran iraun behar du, indarkeria gertaera larrien ondoren, errehabilitazio fisiko, psikologiko, sozial eta ekonomikoak hala behar duelako, eta erakundeen eta jendartearen aldetik, emakume biktimen eta bizirik irten direnen onarpena adierazteko ekintzak jaso behar ditu.

Azkenik, erreparazioarekin estu lotuta, berriro gertatuko ez dela bermatzeko, ezinbestekoa da jendartearen desmilitarizazioan laguntzea, militarizazioak eta balio militaristen hedapenak genero-rol tradizional eta hierarkizatuak indartzen dituztelako, eta emakumeen kontrako indarkeria handitzearekin estu lotuta daudelako. Nazioarteko lankidetzaren erantzukizuna da nazioarteko harremanen eta segurtasuneko politika nazionalen egungo bermilitarizazioa salatzea eta indargabetzea; eta horretarako, armen ekoizpena, salerosketa eta zirkulazioa kontrolatu behar da, base militarrik eta militar nazional eta nazioarteko kopurua murriztu behar da, segurtasun publikoaren militarizazioaren aurka agertu behar da eta lurraldeak minagabetu behar dira, besteak beste. Berriro gertatuko ez delako bermeak, halaber, bestelako neurriak ere behar ditu bakegintzarako politiken eta berdintasun politiken arteko loturak indartzeko eta emakumeen memoria historikoa berreskuratzeko prozesuak bultzatzeko.

5.4. “Laguntzaren eraginkortasunaren logikaren” malgutzea: epe luzeko ahalduentze prozesuei laguntzea

2000.eko hamarkadaz geroztik nazioarteko laguntzaren berregituraketa ikusi dugu; lankidetzarako agentziak eta erakundeak moldatu egin behar izan dute eraginkorrako, espezializatuagoak izateko eta emaitzetara bideratuak egoteko¹². “Laguntzaren eraginkortasunaren logika” deiturikoaren hedapena da, zeinak nabarmen eragin duen agentzia multilateral, bilateral eta GKEen politiken eta programen diseinuan¹³. Bakegintzaren sektorea ez da salbuespena, eta bertan ere ikusi ahal izan dugu eraginkortasunaren aldeko joera eta, horrekin, “bakearen eraginak” neurtzeko adierazleen identifikazioaren aldekoa, eta horrek gerra eta gerraosteko guneetan dauden emakumeen erakunde aktiboei eragiten die ere.

Bakearen eta errekontziliazioaren alde egiten duten ekarpen zahatza zer nolakoa den erakusteko presioak hainbat herrialdeetako emakumeen mugimendu asko, apurka apurka,

12 2000 urtean egin zen Milurtekorako Garapen Helburuak (MGH) adostu zituzten Nazio Batuen Milurteko goi bilera, eta 2005ean egin zen Garapenerako Laguntzaren Eraginkortasunari buruzko Parisko Adierazpena bi gertaera garrantzitsu izan ziren, nazioarteko laguntza berregituratzen lagundu zutenak. Parisko Adierazpena bere egin zuten CAD/OCDEko herrialde emakumeak eta laguntza jasotzen duten herrialdeek. Parisen nabarmendu zirenen bost printzipioak, nazioarteko laguntzaren marko berria itxuratu behar lukeenak, honako hauek dira: jabetzea, lerrotzea, harmonizazioa, emaitzen arabera kudeaketa eta erantzukizun partekatua.

13 Joera horrekin kritikoki diren argumentu batzuen arabera, horren ondorioz, enpresa-kudeaketa ereduak txertatu izanak emakumeen komunitatearen “ korporatibizazioa ” eragin du (Kerr, 2007).

eraginkortasunaren eskema eta lengoaiara, eta eragin maila eta neurtzeko tresnetara egokitzera bultzatu ditu, eta, aldi berean, espezializatu egin dira, emaitzetara bideraturiko kudeaketa eta arazoek ebazpenerako tekniken ikuspegitik, “gatazkek ebazteko eta bakea eraikitzeke erakunde” bihurtzeraino (Mendia Azkue, 2014).

Espezializazio horren ondorio bat da emakumeen erakunde horiek landutako gaien atomizazio edo konpartimentalizazioa gertatu dela; eta ondorioz, gatazken ebazpena eta bakegintza gainerako guztitik bereiz dagoen zerbait bezala agertzen dira (emakumeen kontrako indarkeria, eskubide politikoak, eskubide ekonomiko eta lan-eskubideak, etab.). Hori izan daiteke honako honen azalpena: “Emakumeek bake-prozesuetan egiten duten lana eta bultzatzen diren genero-agendak bakegintzan zentratzen dira, baina oso kasu gutxitan hartzen dituzte kontuan ahalegin horiek biktimek egia, justizia eta erreparaziorako dituzten eskubideak” (Oré, 2005 :2). Gainera, gorago adierazi dugun bezala, espezializazio hori nazioarteko lankidetzak izan ohi duen beste iguripen batekin batera dator, alegia, gatazken aurrean emakumeek posizio “neutrala” izan behar dutela, aurrez emanez horrek sinesgarritasun handiagoa ematen diela “bitartekari” eta bakegile potentzial gisa; eta horrek, finean, errealitatearekin bat ez etortzeaz gain, emakume horiek bakearen alde egiten duten lana despolitizatzen du.

Azkenik, nazioarteko laguntzak eraginkortasunaren logikarantz, espezializaziorantz eta emaitzetarako orientaziorantz duen joeraren beste ondorio bat da proiektuen zikloen araberrako finantzaketak –epe laburrera– garrantzia hartu duela, epe luzeko prozesuei loturiko finantzaketaren kaltetan; eta egia esan, azken horrek zentzu handiagoa du bakegintza bezalako eremu batean, eta hori da, gainera, emakumeen erakundeen egiturak, gaitasunak eta ohiko estrategiak sendotzen lagun dezakeena, epe luzerako ahalduntze-prozesuei laguntzen, esaterako. Gida honetako 4. atalean azalduetako justizia eta erreparazio eskakizunarekin loturiko ekimenak gatazka testuinguruetan indarkeria pairatu duten emakumeen oneratzeko psikosozial eta antolakuntzaren indartze lan luzearen ondoren soilik gauzatu ahal izan dira. Ekintza politiko feministaren parte gisa, gertaera traumatizatuak partekatzea eta haiengan lan egin ahal izatea posible izateko behar besteko konfiantza lantzeak denbora luzea eskatzen du, elkartasuna, errespetua, zaintza, elkarrizketa eta entzutea lantzeko denbora luzea. Hau da, prozesu horiek ezin dira mugatu epe laburretara ez eta proiektu baten zikloari loturiko “arrakasta” iguripenetera.

5.5. Indarkeriaren *continuuma* identifikatzea eta bakearen eraikuntza eskubideen defentsarekin lotzea zentzu zabalean

Emakumeen kontrako indarkeria gogortu egiten da gatazka eremuetan; horietan, erasoak eta ankerkeria planifikatutako politiken parte izatera irits daitezke. Hala ere, garrantzitsua da gogoan izatea beti erro historiko eta egiturazkoak dituen indarkeria dela, kasu guztietan gatazkaren aurretik eta ostean iraute duena, etengabe gertatzen dena eta feminizidioetan duena islarik lazgarriena; baina bai eta esklabotzan, salerosketan, ustiaketan, gabetzean, diskriminazioan, eta emekumeen bizitzen, gorputzen eta lurraldeen kolonizazioan eta desjabetzean ere.

Hori dela eta, beharrezkoa da *indarkeriaren continuum* hori bere testuinguruan eta haren adierazpideetan aztertzea, bai halaber, aldi desberdinetan eta zigorgabetasun berberarekin gertatzen jarrai dezan zer faktorek eragiten duten aztertzea ere. Guatemalaren kasuan, esaterako, Lucia Moran ikertzaile eta aktibistak azaltzen du: “Penagarria da Bake Akordioak indarrean dauden honetan, emakumeen giza eskubideak goraldian daudenean eta Guatemalako estatuak emakumeen giza eskubideen alde eta indarkeriaren kontrako nazioarteko hitzarmen eta itunekin konpromisoa hartu, sinatu eta berresten dituen honetan, emakumeen bizitzarako eta osotasun fisiko eta sexualerako eskubidearen urraketak iraun egiten duela egiaztatzea; bestelako baldintzak dira, baina jarduteko eredu eta eragile berberak, beti boterea erakusteko, indar agerraldia egiteko eta haien eskubideak babesteko ahalegin oro suntsitzeko” (Mendia Azkue eta Guzmán Orellanan aipatua, 2012: 49).

Emakumeen aurkako indarkeria ez da sexismoaren ondorioa soilik, klasismoaren eta arrazakeriaren ondorioa ere bada, eta hala erakusten du giza eskubideen urraketa larriek gehien kaltetzen dituzten emakumeak emakume txirotuak, nekazariak, indigenak eta/edo talde etniko gutxiagotuetakoak izateak eta izaten jarraitzeak (Mendia Azkue, 2017).

Haietako asko euren eskubideen defentsan antolatuta dauden emakumeak izan dira eta dira, sarritan euren lurraldearen defentsan zentratuak. Borroka hori lotuta dago enpresa nazional eta atzerritarrek herrien lurgabetze eta baliabideak kentzeak eragindako gatazkekin; bizitzaren zaintzaren eta kapital metaketaren logikaren arteko tentsioarekin eta, ondorioz, garapen-eredua bera kolokan jartzearekin; identitatearen defentsarekin eta ingurumen-erantzukizunarekin¹⁴. Puntu horretan, garrantzitsua da azpimarratzea hainbat herrialdetako –Latinoamerikan, bereziki– emakume feministak egiten ari diren lurraren defentsaren esanahi berritzea, kolonizazio eta neokolonizazio prozesuak birpentsatuz emakumeengan duten eragina kontuan hartuta, euren gorputzak eta euren bizitzak gabetze horren parte gisa kokatzera eraman baititu horrek. Lorena Cabnal (2010) hitzetan: “Lurralde-lurraren desjabetzea ikuspegi historikoarekin aztertu behar da, identifikatu ahal izateko jatorrizko herrien baliabide naturalen gabetze eta gehiegizko erauzketa hori ezarri zuten kolonizazio prozesuek egungo sistema estruktibista neoliberalarekin jarraitzen dutela eta nola eragiten duten biek emakumeen ongizatean”.

Emakumeek gero eta ikusgarritasun handiagoa dute borroka honetan, alde batetik hori hala izan dadin erabili dituzten tresna propioei esker¹⁵. Horren adierazle da azken urteetan, hiru emakume aktibistak, bi indigenak eta afrikarren ondorengo batek nazioarteko

14 Carlos Martin Beristainek (2010:11) azaltzen duen bezala: “Indarkeriaren sakoneko arazo eta helburuetako bat lurraren konkista eta gabetzea da”. Ikerlariak aipatzen duen adibidean, Guatemalako gerrako –Rio Negro– lehenengo sarraskietako bat Chixoy urtegia eraikitzeke lurra desjabetu nahi izatearekin lotuta dago. Izan ere, 1982an gertatutako masakre hura dokumentatu zuen Argitze Historikoko Batzordeak (CEH) gerraren kasu adierazgarrietako bat gisa: masakre hartan 70 emakume eta 107 neska-mutiko hil zituzten.

15 Adibide gisa, Eskubide Sozial eta Ingurumenekoak Babesteko Emakumeen Latinoamerikako Sareak beste kolektibo batzuekin batera landutako Latinoamerikako jarduera estruktiboen kontrako erresistentzia-ekintzen mapa kontsulta daiteke: <<http://ejatlas.org/featured/mujeres>>.

aintzatespena jaso dutela ingurumenaren defentsan egindako lanagatik¹⁶. Aintzatespen horrek balio sinboliko handia du, eta, zalantzarik gabe, emakumeen lan politikoa indartzen laguntzen du; halaber, beste erantzun batzuk ere baditu inguruan, erailetak eta bestelako errepresio moduak haien estatuetan, eta nazioarteko lankidetzaren erantzun epela jasota. Lolita Chávez Guatemalako buruzagi maiak gogorarazten digun bezala, meatze-enpresei aurre egitean eta beste eragile batzuen laguntza bilatzen ari zirela, GKEk erantzun zuten “ez zutela emaitzen adierazlerik guri laguntzeko, finean, euren proiektuak soilik zituzten gogoan” (Palencian aipatua 2017: 202).

Lurra babesteko antolakuntzari eta mobilizazioari laguntzea funtsezkoa dela uste dugu gatazketan nazioarteko lankidetzaren jardunari dagokionez; hori baita, gaur egun, emakumeek indarkeriari aurre egin eta eskubide guztiak guztientzat errespetatzearen zentzu zabal eta inklusiboan ulertzen den bakegintzan laguntzeko modu nagusietako bat.

16 Goldman ingurumen saria Berta Cáceres, Hondurasko lenka indigenari eman zioten 2015ean. Berta Cáceres 2016ko martxoan hil zuten herrialde hartan; hain zuzen, giza eskubideen eta ingurumenaren alde egiten zuen lanagatik; 2016an Máxima Acuña Atalaya, Peruko nekazariari eman zioten sari bera, Yanacocha meatze-partzuergoaren kontrako bere borrokagatik, eta 2018an, Francia Márquez Mina, afrikarren ondorengo Kolonbiako buruzagiari, eman zioten saria, meatzeen eta urtegiak eraikitzearen kontrako bere borrokagatik.

Bibliografia

- Anderson, Shelley (2012): *Disarm Men, Don't arm Women. Militarization is not emancipation*, Innate Readings in Nonviolence, Iris Network for Nonviolent Action Training and Education.
- Anderson, Mary B. eta Peter Woodrow (1998): *Rising from the Ashes: Development Strategies in Times of Disaster*. Lynne Rienner, Boulder (Colorado).
- Byrne, Bridget (1995): *Gender, Conflict and Development. Volume I: Overview*, BRIDGE Txostena, 34. Zbk., Institute of Development Studies (IDS), Sussex Unibertsitatea, Brighton.
- Byrne, Bridget, Rachel Marcus eta Tanya Power-Stevens (1995): *Gender, conflict and development. Volume II: Case studies: Cambodia; Rwanda; Kosovo; Algeria; Somalia; Guatemala and Eritrea*, BRIDGE Txostena, 35. Zbk., Institute of Development Studies (IDS), Sussex Unibertsitatea, Brighton.
- Cabnal, Lorena (2010): “Acercamiento a la construcción de la propuesta de pensamiento epistémico de las mujeres indígenas comunitarias de Abya Yala”, in ACSUR Las Segovias: *Feminismos diversos. El feminismo comunitario*, <<https://porunavidavivible.files.wordpress.com/2012/09/feminismos-comunitario-lorena-cabnal.pdf>>.
- CEAR-Euskadi (2018): *Defendatzaileak Babesten. Giza Eskubideak defendatzen dituzten pertsonen babes-premiei buruzko diagnostikoa*, Bilbao, <<https://defensoras.cear-euskadi.org/pdf/Defendatzaileak-Babesten-Diagnostikoa.pdf>>.
- ECOSOC (1997): *Agreed Conclusion*, E/197/1.30, Nazio Batuetako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Nueva York.
- El-Bushra, Judy (2000): “Transforming Conflict: Some Thoughts on a Gendered Understanding of Conflict Processes”, in Jacobs, Susie, Ruth Jacobson eta Jennifer Marchbank (arg.): *States of Conflict: Gender, Violence and Resistance*, Zed Books, Londres, 66-86.
- Emakumeen Mundu Martxa (2004): *Carta Mundial de las Mujeres para la Humanidad*, Azken bertsioa, aprobada el 10 de diciembre en Kigalin, Ruandan, abenduaren 10ean onartua, Emakumeen Mundu Martxako 5. Nazioarteko Topaketan.
- Enloe, Cynthia (2002): “Demilitarization – or More of the Same? Feminist Questions to Ask in the Poswar Moment”, in Cockburn, Cynthia eta Dubravka Zarkov (arg.): *The Poswar Moment: Militaries, Masculinities and International Peacekeeping*, Lawrence eta Wishart, Londres.
- Garapenerako Laguntza Batzordea (1998): *Garapenerako Lankidetzan Genero berdintasunerako eta Emakumeen abalduntzerako Garapenerako Laguntza Batzordearen Jarraibideek*, ELGA, Paris.
- García, Carmen Teresa eta Magdalena Valdivieso (2006): “Una aproximación al Movimiento de Mujeres en América Latina. De los grupos de autoconciencia a las redes nacionales y transnacionales”, *Observatorio Social de América Latina*, VI. urtea, 18. Zbk., CLACSO, Buenos Aires.

- Hegoa (2017): *Trantsiziozko justizia inklusibo baten alde eragiteko ekintza feminista eta internazionalistarako agenda*, <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/es/publications/380>>.
- IM-Defensoras (2018): *Cuerpos, territorios y movimientos en resistencia en Mesoamérica. Informe de agresiones a defensoras 2015-2016*, <<https://im-defensoras.org/2018/05/informe-2015-2016-de-agresiones-a-defensoras-cuerpos-territorios-y-movimientos-en-resistencia-en-mesoamerica/>>.
- IM-Defensoras (2016): *Agresiones contra defensoras de los derechos humanos en Mesoamérica. Informe 2012-2014*, <<https://im-defensoras.org/2015/09/informe-2012-2014-agresiones-contra-defensoras-de-ddhh-en-mesoamerica/>>.
- Kerr, Joanna (2007): *The Second Fundber Report: Financial Sustainability for Women's Movements Worldwide*, Association for Women's Rights in Development (AWID), Toronto, Kanada.
- Mendia Azkue, Irantzu, Gloria Guzmán Orellana e Iker Zirion Landaluze (arg.) (2017): *Generoa eta Trantsiziozko Justizia. Emakumeen mugimenduak zigorgabetasunaren aurka*, Hegoa, Bilbao, <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/362>>.
- Mendia Azkue, Irantzu (2017): "Sarrera. Emakumeen ekintza politikoa egia, justizia, erreparazioa eta berriro gertatuko ez delako bermerako eskubidearen alde", in Mendia Azkue, Irantzu, Gloria Guzmán Orellana eta Iker Zirion Landaluze (arg.): *Generoa eta Trantsiziozko Justizia. Emakumeen mugimenduak zigorgabetasunaren aurka*, Hegoa, Bilbao, 15-32, <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/362>>.
- Mendia Azkue, Irantzu (2014): *La división sexual del trabajo por la paz. Género y Rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina*, Tecnos, Madril.
- Mendia Azkue, Irantzu (2012): "Trantsiziozko justizia: dilemak eta kritika feminista", *Hegoa Lan-Koadernoak*, 59. Zbk., <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/300>>.
- Moser, Caroline O.N. eta Fiona C. Clark (arg.) (2001): *Victims, Perpetrators or Actors?: Gender, Armed Conflict and Political Violence*, Zed Books, Londres eta Nueva York.
- Nazio Batuak (1993): *Emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteari buruzko Adierazpena*, Asanblada Orokorraren Erresoluzioa 48/104, abenduaren 20koa.
- Nazio Batuak (1995): *Beijingeko Emakumei buruzko Munduko Laugarren Konferentziaren Adierazpena eta Ekintza-plataforma*, irailak 15koa.
- Nazio Batuak (2000): *Windhoek Adierazpena eta Bakearen aldeko operazio multidimentsionaletan genero ikuspegia txertatzeari buruzko Namibiako Ekintza Plana*, uztailak 14koa (A/55/138-S/2000/693).
- Nazio Batuak (2000): *Emakumei, bakeari eta segurtasunari buruzko 1325 Ebazpena*, Nazio Batuetako Segurtasun Kontseiluak onartua bere 4213. saioan, urriak 31koa.
- Nazio Batuak (2016): *Sexu-ustiaketaren eta abusuen aurka babesteko neurri bereziak*, Idazkari Nagusiaren Txostena, Asanblada Orokorra, otsailak 16koa (A/70/729), <<https://undocs.org/es/A/70/729>>.
- Nazio Batuen Garapen Programa (2003): *Gender Approaches in Conflict and Post-Conflict Situations*, <<https://reliefweb.int/report/world/gender-approaches-conflict-and-post-conflict-situations>>.

- Oré Aguilar, Gaby (2005): “Género y justicia en sociedades en transición: una aproximación desde los derechos humanos”, InfoCIP, 7. Zbk., “Justicia Transicional y Género”, Centro de Investigación para la Paz (CIP), azaroa, 1-4.
- Palencia Prado, Tania (2017): *Cero punto cero. Estado de los derechos de los pueblos indígenas en Guatemala a 20 años de la firma de la Paz*, Guatemala.
- Ruta Pacífica de las Mujeres, Carla Afonso y Carlos Martín Beristain (2013): *Memoria para la vida. Una Comisión de la Verdad desde las mujeres para Colombia*, Hegoa, Bilbao, <<http://publicaciones.hegoa.ehu.es/publications/290>>.
- Strickland, Richard eta Nata Duvvury (2003): *Gender Equity and Peacebuilding: From Rhetoric to Reality: Finding the Way. A discussion paper*, International Center for Research on Women (ICRW), Washington D.C.
- Woodhouse, Tom eta Tamara Duffey (2000): *Peacekeeping and international Conflict Resolution*, United Nations institute for Training and Research, Programme of Correspondence Instruction in Peacekeeping Operations (UNITAR-POCI).
- Woroniuk, Beth (2000): *Gender Equality and Peacebuliding: An Operational Framework, Nazioarteko Garapenaren Kanadako Agentzia*, <<https://reliefweb.int/report/world/gender-equality-and-peacebuilding-operational-framework>>.

